

# KRONOLOGIA OROKORRA

## **1- Antzinateko estilo artistikoak (K.a. 3000 – K.o. 476)**

Nekazal zibilizazioen arte estiloak. Egipto eta Ekialde Hurbila:

1. Arte egiptiarra: K.a. 3000 – K.a. I. mendea
2. Ekialde Hurbileko artea: K.a. 3000 – K.a. VII. mendea

Mendebaldeko artea. Grezia eta Erroma:

1. Arte grekoa: K.a. VIII. mendea – K.a. II. Mendea
2. Arte etruskoa eta erromatarra: K.a. VII. mendea – 476

## **2- Erdi Aroko arte estiloak ( K.o. III. mendea – 1453/1492)**

1. Jatorrizkoa arte kristaua: III. mendea – V. Mendea
2. Europako inbasioen garaiko artea: VI. mendea – VIII. Mendea
3. Arte aurrerromanikoa: VII. mendea – X. mendea
4. Arte Erromanikoa: XI. mendea – XIII. Mendea
5. Arte Gotikoa: XII. mende amaiera – XV. mendea

## **3- Aro Modernoko arte estiloak (XV. mendea – 1789)**

1. Berpizkundeko artea: XV. mendea – XVI. Mendea
2. Manierismoa: XVI. Mendea
3. Arte Barrokoa: XVII. mendea
4. Arte Rokokoa: XVIII. mendea

## **4- Aro Garaikideko arte estiloak (1789 – 1939)**

1. Arte Neoklasikoa: XVIII. mendea – XIX. mende hasiera
2. Erromantizismoa: 1820tik aurrera
3. Errealismoa: 1848tik aurrera
4. Inpresionismoa & Postinpresionismoa: 1874tik aurrera
5. Abangoardia artistikoak: XX. mendeko lehen hamarkadatik aurrera
  - Fauvismoa: 1904
  - Kubismoa: 1906
  - Futurismoa: 1909
  - Abstrakzioa: 1910/1911
  - Dada: 1916
  - Surrealismoa: 1924

## Arte egiptiarra: K.a. 3000 - K.a. I. mendea.

Egiptoko kultura Sahara basamortua zeharkatzen duen Nilo ibaiaren inguruan garatu zen. Egiptiarrak, ibaiaren alboan bizi ziren, izan ere ibai ertzeko lurak nekazaritza eta abeltzaintzarako egokiak ziren.



Egiptoko zibilizazioa bi eskualdeetan zatitzen zen:

-Behe Egipto (iparraldean): Delta inguruan. Hiri garrantzitsuenak Menfis da. Ikurra papiroa (lore zuria) da.

-Goi Egipto (hegoaldean): luzea, 1000 km. Inguru Niloko lehenengo ur jauziraino iristen zen: Asuan. Ikurra lotoa (lore gorria) da. Tebas da hiri garrantzitsuenak.

Narmer faraoiaren agindupean, bi zibilizazioak elkartu ziren, Goi eta Behe Egipto, zibilizazio bakarra osatuz.

Zibilizazio honen kulturak eta estiloak, ekialdeko eta mendebaldeko zibilizazioetan eragina izan zuen, batik bat Grezian eta Erroman.

Egiptoko zibilizazioaren kulturako ezaugarri nagusiak artean islatzen dira modu zuzenean. Eta hori gehienbat, elementu geografikoetan, erlijioan eta gizarte egitura piramidalean ikus dezakegu. Hala ere, funtsezko artea botereari lotuta dago.

Monumentaltasuna eta handitasuna aipagarriak dira tenplu eta hilobiez ari garenean. Hauek, betierekotasunaren ideiaz irautea lortu dute, izan ere material iraunkorrek inbentzio egiten zituzten, adibidez harriz. Jauregiak berriz, buztinez egiten zituzten, horra hor ez gorde izanaren arrazoia.

Egiptiarrek lengoi artistiko propioa garatu zuten, eta honen abiapuntutzat natura hartu zuten. Behin natura abiapuntutzat harturik, formen abstrakzioa finkatu zuten. Adibidez, mendia eta pilonoa. Hori dugu abstrakzio prozesua, hau da, forma sortzeko bidea, batez ere arkitekturan eman zena. Forma horiek, perfektuak, aldaezinak eta absolutuak bilakatu ziren. Eta forma hauek, Egiptoko historian zehar iraungo dute. Iraunkortasunarekin jarraituta, ordena (maat) bermatzeko modu bat izan zen formen jarraipena.

Horrekin loturik, lengoi formal horren bidez, eduki sinboliko bat transmititzen dutela ukaezina da.

### 1.Arkitektura.



Arkitektura handia goi mailako pertsonaiekin lotu behar da. Piramideak egin aurretik, I. eta II. dinastian, Egipton **Mastabak** egiten ziren. Beraz, piramidearen aurrekaritzat hartzen ditugu. Bertan, faroioak lurperatzen zituzten. Zaharrenak gehienetan pezuzkoak ziren, horregatik gehienak ez dira kontserbatzen. Mastabak forma geometrikoa zuten. Lur azpikoa eta gaineko bereizten zen. Azpian sarkofagoa gordetzen zen. Gainean berriz,

beste hainbat gela zeremonietarako, estatuak gordetzeko etab egiteko zeuden. Kanpoan, sarrera eta kapera moduko bat egoten zen.

Mastabetan piramide itsura aurreikusteko garaia, Zoser faraoiak III.dinastian agindu zuena dugu. Aurreko faraoiaren mastabaren gainean egin zuen, piramide mailakatua izan zen. Zeruko gertutasunari garrantzia emanez.

Hau izan zen tipologia aldaketa, barneko egitura ere konplexuago bihurtu zen eta piramide perfektuaren finkapena izan zela esan genezake. Hilobia hauetan, ez zegoen lurpean egituraren zentroan baizik. Piramidea eta gune sakratua batu ziren honekin.

Behin tipologia finkatuta, IV. dinastian, hiru piramide handi egin ziren.



- Kefren (k.a.2600).
- Keops (k.a. 2530).
- Mizerino (k.a.



2470).

Eraikuntzaren kanpoko fatxada eta barneko dekorazioaren tipologiaren ezaugarriak lotura zuzena daukate. Betiere gaiak eta formak funtzio erlijioso baten pean daudelarik.

## 2.Eskultura.

### Rehotep eta emaztea.



Hilobien tipologiaren finkapenarekin batera, eskulturaren garrantzia agertzen da. Zentzu erlijiosoaren erakusle dugu eskultura. Jainkoen eta faraoien arteko lotura irudikatzeko erabiltzen dira. Hildakoaren “ka” arimaren egoitzatzat hartzen da eskultura hilobietan. Handitasuna eta monumentaltasuna ditugu adierazle ere.

Eskulturak idealizazioa eta zurruntasuna dute oinarri. Ez dira naturalistak, jainkotasuna adierazi nahian ezaugarri horiek hautatu zituzten. Beraz, boterea forma finko batzuen bidez adierazten dute.

Koadrikula sistemaren bidez egiten zituzten forma kanonikoak Egipton. 18 ukabileko kanona da. Proporzioak era errazean mantendu ziren.

Gizonak bai eskultura polikromatuetan eta baita erliebe edo pintoretan emakumeak baino ilunago irudikatzen zituzten.

Zurezko eskulturgintzan aztarna gutxi gorde dira, hala ere, lengoai formala mantentzen dute hauek ere.

Ushebti-ak hilobietan agertu ziren eskultura txikiak dira. Hil ondorengo bizitzan eguneroko lanak egiten zituzten pertsonak dira. Gehienetan buztin polikromatuak dira. Hauetan errealismo kutsu bat nabarmentzen da, mugimendua eta jarrera biziak dituztelarik.



**Erliebeak** ere egiten zituzten. Hau egiteko, lehenengo pareta prestatzen zuten. Lasto umelez, karez eta beste materialez, pareta laua egin, zuritu eta ondoren marratzu egiten zuten. Erliebeetan benetan esanguratsuak dira ingeradak, horrek oso biziak egiten ditu irudiak. Horren adibide ditugu Ti-ren mastabako erliebeak:



E g i p t o n aipagarria da; izan irudikatzerakoan, eta hankak, baina aurrera begira jartzen zituzten.

frontaltasunaren legea ere, pertsonak perfilez egiten ziren burua gorputza eta begiak

Inperio Berriaren ezaugarria ere monumentaltasuna dugu. Ardatz zuzen baten inguruan antolatzen dira erakintzak, bide liturgiko bat jarraituz hain zuzen ere.

### **Ekialde Hurbileko artea: K.a. 3000 - K.a. VII. Mendea.**

Mesopotamiako kultura Tigris eta Eufrates ibaien artean sarturiko zibilizazio nomadek sortu eta garatu zuten. K.a. 3000. Urtean datatzen da hauen sorrera. Eta gaur egungo Siria, Irak eta Iranen gertatu zen.

Mendebaldean eragin nabarmena izan zuten kultura hauek, izan ere, jainkoen bilkurak mediterraneo osotarik agertu dira. Zibilizazio hauen artea, beraien kultura ezagutzeko giltza nagusia da.

Erljioa oso garrantzitsua izan zen, jainkoen irudiak, mitoak oso ohikoak dira artelanen gaiei dagokionez. Erregetzaren botere sistema jarraitzen zuten, hau jainkoaren ordezkaria zen. Erregetza agertzeak hirien sorrera adierazten du, tenpluek ordena mantentzearen zeregina baitzuten.

Horretaz gain, hemen arteak funtzio berezi bat hartzen du: analfabetismoa dela eta, ikus lengoai berezi bat sortu zuten, irudiak zentzu didaktikoan eginez. Boterearen kontzeptua transmititzeko, arautegiak finkatzeko, autoritatea sustatzeko eta rol sozialak azpimarratzeko. Beraz, artea orden sozialaren funtsezko elementua da.

#### **1.Arkitektura:**

Erabiltzen zituzten materialak ez ziren gogorrak. Eskuragarri zituzten materialak galkorrak eta xumeak baitziren.

Arkitektura monumentala adobezko adreiluz egiten zuten. Labeetan lehortu eta bertan ipini. Arkitektura ez da dintelduna, gangatua baizik. Handitasuna erakutsi nahian, azpiegitura xumearen gainean beraz adreilu beiratuak eta polikromatuak jartzen zituzten.

#### **Dekorazioaren funtzioa:**

-Barneko materiala babestea.

- Azal dekoratibo bat ezartzea.
- Efektu estetikoak: koloreen efektuen bidez, aberastasuna adierazi.
- Efektu sinbolikoak: aurrekoarekin loturik, distira eta argitasuna sortzen zen.

(Koloreen efektua+ distira+ argitasuna.)

### Kolorismoa.

Honi esker, ikus komunikaziorako sistemaren funtsa finkatu zen bai eskulturan, baita arkitekturaren ere. Zentzu berean ulertu behar dira lorategi artifizialak adibidez. Beraz, estetika aberatsa eta bizia eskala monumentalean.

#### Arkitekturaren tipologiak:

- Tokiko ezaugarri naturalak oso garrantzitsuak ziren, izan ere lotura zuzena zegoen arkitektura eta zonaldearen artean.
- Kultura ezberdinen arabera aldaketak zeuden: Summer eta Akkaden arkitektura monumental bakarrak eraikin erlijiosoak ziren. Asirian ordea, jauregiak hartu zuten garrantzia.



-Eraikinak puntu kardinaletara orientatzen zituzten, zentzu sinbolikoari jarraiki.

-Eraikin ezagunena: ZIGURAT. Arkitektura forma, naturatik harturiko elementua da, mende batetik hain zuzen ere.

-Hiriak plano erregularrekoak ziren eta espazio sakratuaren inguruan antolatzen ziren. Ate bikoitza izaten zuten, bigaren benetan defentsiboa. Eta prozesio bidea ere izaten zuten. Esanguratsua Babiloniakoa da.

-Etxebizitzak oso xumeak ziren. Patio zentral baten inguruan antolatzen ziren.

Behean lan eremua eta goialdean etxebizitza zegoen.

#### Jauregiak:

-Monumentaltasunaren ondorioz, botere sinbolikoa adierazten zuten

-Egitura oso konplexuak: funtsezko elementuak, patioak, tronu gela... ziren. Atari monumentalak zituzten. Horren konplexuak dira erregeek zati berriak gehitzen zituztelako.

Persepoliseko apadana oso aipagarria da.



#### 2. Eskultura:

Ez dira tamaina handikoak. Funtsezko ezaugarriak eskematismoa, aurrekotasuna, hieratismoa eta zurruntasuna dira. Metalezko puntzoiaren erabilera aurreratu hala, egiturak gero eta konplexuagoak egiten hasi ziren. Begiei garrantzi berezia ematen zitzaien izan ere hautzat begiak arimaren leiho ziren, eta jainkoarekiko komunikazioa hauen bitartez garatzen zuten. Harri bitxiak jartzen zituzten begietan.

**Erliebeak eta estelak** funtzio dekoratzailea zuten. Erregearen goraipamenerako egiten ziren. Orokorrean oso erliebe baxua gauzatu zuten.

Naram sinen estela. →

Hierarkizazioa hemen benetan nabaria da, erregearen kokapenari erreparatuz gero.

Bolumenaren bidez, dibujoen nagusitasuna bultzatu zuten. Gehienetan erliebeak izaera narratiboak zituzten, detailez betetako eszenak zirelarik. Irudien monumentaltasuna ere aipatzekoa da, izan ere, detaileak oso landuak egiten zituzten. Naturalismo espresionista burutu zuten, anatomia sendoaren tratamenduari dagokionez.



Erliebe asiriarra.



**Zilindro zigiluak** egiten zituzten. Harri gogorrean zizelkatutako irudiak ziren. Hauek sarritan erabiltzen ziren adreiluak markatzeko edo dokumentuen

ofizialtasuna bermatzeko.



Modu ezberdinetan, material asko erabili zituzten. Askotan, “tarazearen” teknika erabiltzen zuten. Material dotoreekin kolorea erabili, marrazkiak eginez, mosaiko bat sortuz. Horietan, behi buruak oso ohikoak ziren. Egipton antzera, marra baten gainean irudikatzen zuten, baina hauek eskortzoa egiterakoan ez dute zailtasunik. Hauek beti bizarrarekin irudikatzen dira ere.

Horretaz gain, gai ezberdinak irudikatzen dira, ondoren horiek, mendebaldera ere etorriko direnak. Askatasuna nabarmena da. Horren adibide Ureko estandartea da.

Ur hiriko estandarte erreala. K.a. 300.



Arte  
mendea -

grekoa: K.a. VIII.  
K.a. II. mendea.

Mendebaldeko kultura nagusitzat Grezia eta Erroma ditugu. Arte mediterranea, grekoz hitz egiten zutenek sortu zuten; Egipto, kontinentea, Egeoko uharteak, Jonia eta italiar penintsula (Etruria eta Erroma).

Arte grekoan, Kretako artea eta kontinentekoa nagusitzen dira. Azken hau, mizenastarrek eta grekoek osatu zuten.

## 1.ARTE MINOSTARRA (KRETA).

### Jauregiak:

Kultura minostarra jauregietan islatzen da; honen eredia Cnosos jauregia dugularik. 2 edo 3 pisuko eraikinak ziren. Zentru politiko, erlijioso eta ekonomikoak ziren garai hartan. Denboraren poderioz, arkitektura osatzen joan zen. Egitura konplexua izatera arte.



Planifikazioa patio baten inguruan burutzen zen. Tronu gela oso garrantzitsua da, bere dekorazio piktorikoa dela eta. Biltegiak, korridoreak eta eskailerak ere bazeuden. Guztia, pinturaren bidez dekoratuta zegoen. Ekialdetik etorritako hainbat ezaugarri nagusi bertan aurkitu dira, hala nola, irudi geometrikoen errepikapena.

Beste jauregi bat aipatzekotan, Mailako jauregia dugu. Hau, txikiagoa da, baina jarraitzen duen egitura guztiz berdina da.

Jauregiek kanpotik ez zuten monumentaltasuna erakusten, izan ere,

edertasuna barnerako gordetzen zuten. Eraikuntzan galeria asko daude, bai kanpoan baita barnean ere. Hauek argiztatzeko eta aireztatzeko dira.

### Jauregien funtsezko ezaugarriak:

- Kretako kultura merkataritzan oinarritzen zen, ez ziren gerrazaleak.
- Eremu ez gotortuetan bizi ziren, hala ere, esparru itxiak ziren. Barnean eguneroko bizitza aurrera ematen zuten.
- Jauregien kokapena: kostaldean bat, beste guztiak barnealdean aurkitu dira.
- Oinplanoaren orientazioa iparraldetik-hegoalderakoa zuten.
- Barruko espazioaren antolaketa konplexua zen oso.
- Gune espezializatuak zeuden.
- Eskailera oso landuak zituzten.

### Eraikuntza teknikak eta elementuak.

Eraikuntzak lekuko ezaugarri naturalekin oso lotuta zeuden; lurrikarek eraikuntzak baldintzatzen zituzten. Horregatik, material malguak (zura, buztina, harlagaitza) eta funtzio tektoniko zuzena burutzeko, harlandua konbinatu zituzten. Harri gogorrek erresistentzia dute lurrikara bat izanez gero. Material malguekin ez dago erresistentziarik, hala ere, pareta mugituko da, baina ez da eroriko.

Hormen azalak, pezozko eta iztukuzko (igeltxo) geruza batez estaltzen zituzten. Ondoren, dekorazio piktorikoa, pilareak eta kolomak jartzen zituzten.



Zutabeek jatorria enborretan dutela esan ohi da. Izan ere, goiko eta beheko diametroak ezberdinak ziren, goikoa handiagoa. Fustea margotzen zuten baina basea ez eta kapitulari dagokionez, bikoitza jartzen zuten.

Arte minostarreko eraikuntzak beti dinteldunak dira; beraz, euskarri nagusiak kolomak dira.

Taulamentuari dagokionez, zurezko egitura erakusten du. Egurrezko hagiak dira funtsezko elementuak eta euskarrien gainetik kokatzen dira. Taulamenduaren gainetik, enborrezko sabaia dago.

Zoruak zolatuak izan ohi dira.

### Eskultura:

Zibilizazio honetan, artistek erregearen menpean egiten zuten lan. Hala ere, errege eta sazerdoteen irudiak ez dira agertu. Emakume eskulturak agertu dira gehienbat. Zentzu erlijiosoan ulertu behar dira, sazerdotesa edo sugeen jainkosak bezala. Jauregietako kapera txikietan aurkitu dira.



Hauek egiteko brontzea eta gogorak ez diren harriak (maiolika) erabili zituzten. Ikonografiaz esan daiteke oso ezaguna dela, eguneroko emakumeen janzkera jarraitzen dute.

Forma geometrikoak zituzten forma nagusitzat. Liztor gerria dugu aipagarri.

Buruan, txano berezi bat daramate, honi polos deritzo. Lepoan berriz, korapilo sakratua dute.

Emakumeen irudi hauekin batera, beste elementu batzuk ere agertu dira.

### Segalarien ontzia. K.a. 1500.

Aparteko artelan funtzionala da ontzi hau. Estilo eta konposizio garrantzitsua dauka. Gizakien anatomiaren ezaugarria adibidez, Kretako estiloa jarraitu beharrean, kontinenteko artearen antza gehiago dauka. Esaten da, kontinentetik Kretara jendeak emigratu zueneko garaikoa dela. Ezaugarri fisiologikoak era ezberdin batean egiten dira, sudurra, begiak, espazio eskultorikoa...

### Pintura:

Zibilizazio honen adierazpenik bereziena eta interesgarriena pintura da. Materialak xumeak zirenez, dekorazio landua burutzen zuten jauregi osotik barrena.

Soilik funtzio dekoratzailea zuten, baina, jauregiaren lekuaren arabera gaiak ezberdinak ziren.



Teknika freskoa burutu zuten. Azken geruza lehortu baino lehen, puntzoi batez ingeradak egiten zituzten eta ondoren ingerada horiek koloreztatu. Azkenik barrukoa margoz betetzen zuten. Oso marrak burutuak egin zituzten, oso margolari onak eduki zituen zibilizazio minostar honek. Teknika zuzena eta bizia jarraitzen zuten, eta kontuan izanik trazu batez sortu behar zirela irudiak, artisten meritua handiagoa da oraindik.

Erabilitako koloreak pigmentu naturalak ziren. Argi-ilunen efekturik ez zuten sortzen hauek. Batzuetan, irudien koloreak fantastikoak dira.

Konposizioa kokapenari jarraiki bereizi egiten da. Eszena oso bat espazio batean. Honek espazio batasuna lortzen zuten, normalean pasiluetan zeuden horrelako eszenak.

Gaiak askotarikoak ziren, eguneroko bizitzakoak, erlijiosoak, itsas eszenak, animali lurtarrak, fantastikoak...

Beraz, forma malguak dituzten irudi biziak, zuzenak eta alaiak direla ondoriozta dezakegu.

Gehienak berreginak dira, betiere, literatura iturrien deskribapenak kontuan izanik.

## 2.ARTE MIZENASTARRA.

K.a. XVI.mendean finkatu ziren arkitekturaren ezaugarriak:

-Hiri zibilizazioak.



-Arkitektura zibila eta erlijiosoak.

Zibilizazio gerlaria zen mizenastarra. Harresiak zituzten hiri gotortuak eraiki zituzten. Harri gogor eta oparoak ziren, tamaina handikoak eta harlanduak. Inolako materialik edo elementurik gabe elkartzen zituzten bata bestarekin, puzzle bat bailitzan.



Arkitektura zibilaren funtsezko elementua megarona da. Ez dauka tenplu grekoekin zer ikusirik. Fatxadan bi koloma ditu, "distilo inantis" izanik. Barruan, lau kolomak eusten duten estaldura dintelduna dauka. Eta sabaian, habeen sistema jarri zuten. Barruko espazioaren zentroan Schara (sutegia) zegoen. Honen atzean tronua. Kretako influentzia ikus daiteke tronugelaren itxuran.

### Akropolia:

Muino batean kokatutako gune gotortua da. Aro Mizeniar honetan sortutako akropolisak hausturarik gabe garatuko dira Aro Klasikoaren bitartean ere. Mizenas, Tirinto, Pilos, Atenas..


Akropolis hauen ezaugarri nagusiak, monumentuzko atea sarrera moduan izatea da. Egitura dintelduna daukate hauek ere. Pieza bateko dintela da, eta gainean triangelu formako hutsunea dago. Deskarga triangelua hau, bertan eskulturak jartzeko balio du. Eskultura honetan bi lehoi eta erdian koloma bat dagoela ikus dezakegu. Lehoiak babestearen funtzioa dute eta erdiko kolomak jauregiaren eta erlijioaren boterea adierazten du. Deskarga triangelua jarri ez balitz, gaineko pisu guztiak dintela hautsiko lukete. Beraz, modu honetan, dintela aske geratzen da.



Ezaugarria nagusiak:

- Formen eraketa, funtzio eta materialaren eskakizunen menpe dago.
- Antolamendu garbia eta forma puruak. Dekorazio sekundarioa.
- Monumentaltasuna.

### Hilobiak:



Mizenasen benetako ekarpena hilobiak egiteko garatu zuten modu berezia izan zen. Batez ere, k.a. 1300 urte ingurukoak.

#### Atreoren altxorra edo hilobia.

Mizenas, k.a. 1300-1250 inguru. 36 metroko korridorea, oinplano biribileko sarreraraino; hemendik usteltze gelara sartzen zen. Gorpua zeharko usteldu arte hemen uzten zen hildakoa.

Kanpotik begiratu gero, mendi artifizial moduko bat da. Familia hilobiak izaten ziren eta bertan urrezko pieza asko agertu dira.

Harresietako ateen egitura berbera dute hilobiek. Arku faltua duen egitura dinteldua. Oinplano biribileko aretoaren harriak horizontalean barrurantz sartuta jartzen zituzten.



### Urregintza:

Mizenaseko zibilizazioa urretan benetan aberatsa izan zen. Ontziak, bitxiak, erritoiak agertu dira. Batzuetan animalia itsura izaten zuten, bestetan luzangak ziren.

Hildakoei aurpegi gainean urrezko maskarak ipintzen zitzaizkien. Egiptoko eragina izan daiteke. Xafla bolumendun modukoak dira eta aurkitu diren guztiak gizon aurpegiak dira.



### Vafioko ontziak. K.a.1500.



Hilobi batean agertu ziren. Hauek, urrearen gaineko erliebeak dira. Zezenak agertzen dira bietan. Batean, narrazio mugitua da eta bestea geldoagoa. Uste da biak osagarriak izan daitezkeela. Batean, sare batekin zezenaren ehiza irudikaturik dago. Bat harrapatuta dago, sakrifizioak egiteko izan daitezkeela uste da. Bigarrenean, zezena eta behia elkarrekin agertzen dira. Bertan irudikatzen diren pertsonak janzkera kretarra dute.

## 3.KLASIZISMOA.

### 1.Arkitektura:

Arkitektura grekoa antzinaroko lorpenik handiena da. Grekoen ustez, arkitekturaren bidez beren kulturako ezaugarriak islatu behar ziren. Ordenak asmatu eta funtzio eta forma artistikoen finkapen garrantzitsuak egin zituzten. Kontzeptualki, forma, edukia eta funtzioaren arteko oreka bikaina gauzatu zuten.

-Arkitekturari esker, naturarekin harreman orekatua lortu zuten. Topos (lekua grekoz).

-Kanpoko eta barruko espazioaren artean bereizketa egin zuten. Horretarako forma edo tipologia bereziak garatu zituzten. Adibidez kolomata (kolomen ilera).

- Funtzionaltasuna zehaztu zen. Tenpluak ez zuten funtzio erlijiosorik, soziala baizik. Barneko espazioan estatua gordetzen zen eta kanpoan egiten zen bizitza.
- Sinbolismoa gauzatzeko formarik burutuena.


Hormen eraikuntzak, grapa sistemaren bidez, harlanduz egiten zituzten.

Tenpluaren egitura:

Angelu zuzeneko oso egitura erregularra dute. Estereobato izeneko podio baten gainean kokatzen ziren. Eta ardatzaren nagusitasuna azpimarragarria da.

Kolomadura:

- Prostilo: aurrean.
- Anfiprostilo: aurrean eta atzean.
- Periptero: inguruan.
- Diptero: periptero bikoitza.
- Distilo: 2
- Tetrastilo: 4



Ardatza= arrapala+ peristilo+ pronaos+ naos.



Atenaseko Akropolian, Atenas hiriko tenplu garrantzitsuenak daude. Atari monumentala da, ez da ate bat zuzenean monumentu egitura bat da: propileoak. Hona, arrapala mailakatu batetik iristen da. Goian, partenoia zen nagusi eta Kalikrates eta Iktinosen eskulturak zeuden.

2.Eskultura:



**Kuro**

**Kuro**

**Efebo**

Marmola hauskorra zelarrik, grekoek brontzean burutu zituzten haien eskulturen forma perfektuak. Denboraren poderioz, hobekuntza eman zen formen trataeran.


Antropomorfismoa da eskulturaren oinarritzko ezaugarria. Bizia eta nagusitasuna erakusteko, mugimendua. Mugimendua lortu baino lehen hala ere, gizakiaren perfekzioa lortzeko, lehenik forma itxiak eta egiptiarren konposizio berdinak burutu zituzten.

Mukulu biribileko tradizioa Egiptotik berreskuratu zuten. Ukabilaren proportzioa erabiltzen hasi ziren. Baina, ez zeterren bat trinkotasun honekin, bere naturaren perspektiba zela eta. Hala ere, Egiptiarren proportzioa eta simetria hartu zuten, nahiz eta beste era batean egin.

Simetria bertikalaz gainera, giza natura definitzeko zilborretik marra horizontal bat izango dugu; abdomena, pubisa eta artikulazioak definituko dituena. Bularrean, pektoralak eta klabikula definitzen duen marra dugu. Marra bakoitza bertako mugimendua errazteko baliagarria da. K.a. 480. urtearen inguruan, belauen flexioa emango da; honek, beheko lerro horizontalaren inklinazio txiki bat ekarriko du. Horizontaltasuna galtzen delarik, kontrapostoaren ekarrera bultzatuko du.

Pixkanaka, formak borobilagoak eta bigunagoak egingo dituzte, naturalago eginez. Ilea adibidez, K.a. V.mendean moztu egingo da naturalagoa izanez. Begiradaren espresioa lortzeko, begietan kristal beiratuak jartzen hasiko dira. Eta horri irribarre arkaikoaren desagerpen mantsoa gehitu behar zaio.

Grekoek, ez zuten argi-ilunen efektua gustuko, horrek berez formak engainatzen zituelako.



Orain arte, errealismo natural bat garatu zuten orduko artistek. Baina greziarrek ez zuten uste bikaintasuna naturan zegoenik, beraz naturatik abiatuta eskultorearen sorrera zen bikaintasunaren eredu.

Simetria denborarekin galduko da, baina posturarekiko bakarrik. Eskulturak nahiz eta tradizioa eta forma eduki, testuinguru moralak aldaketa formalak ekarriko ditu posturatan. Honen ondorioz, bizitasuna gero eta argiagoa da. Ikuspuntu aniztasuna hasiko da, frontaltasuna galduz eta gainera brontzeko egiturak zatika landuko dira. Polikletoren eskutik, 1/7 kanona sortu zen, perfekzioa adierazteko.

Polikletoren doriforoa. K.a. 440.

Zeus tximista botatzen.




“Mugimendu enfatikoa”: tentsioa eta mugimendu imminentea adierazten du. Baina hasieran muskuluak ez du jatorrizko inpultso indarra adierazten, azken finean pose bat da.

Denborarekin, indar edo esfortzu muskularra adieraziko dute eskulturrek, betiere oso era klasikoan landutako fisikoa izango da.

Tentsioari dagokionez, Diskoboloak kurbadura itxia dauka. Deskargatzen bidea, burutik ipurdira eta lurrera da. Baina baita argazkian ikus daitekeen bezala, sigi-izango du.

saga forma bizi eta itxia

Tenplua arkitektura, osatzen dute batasun jatorrizko forma perfektua ere, arkitekturako perfekzioa galtzen zuten



eskultura eta pintura monumentalek zentzua emanez. Pinturak bere osatzeko ezinbestekoak dira, izan elementuak eta eskulturrek argi-ilunen efektuen ondorioz.

Berdez, gorritz, horiz, urdinez, okre kolorez... margotzen zuten.  
Metopak, frisoak eta baita frontoiak ere dekoratuta egoten ziren.

#### Frontoiak:

Aro Arkaikoko tenplu doriarrek monumentaltasuna adierazten zuten jada. Eszena toki zehatz batean moldatu behar da frontoiak gauzatzekoan, hori eskultoreentzat erronka gogorra izan zen.

K.a. VII.-VI. mendeetan, tamaina txikitu egiten zen alboketako irudietan, hauek sar zitezten. K.a. V. mendean ordea, eskala txikitu gabe, moldatzen zituzten irudiak. Eszenak konplexuak izanez, pertsonaiak multzoka kokatzen zituzten. Frontoiaren erdian, pertsonaia nagusia jartzen zuten.

Olinpiako Zeusen tenplua. K.a. 465-457.



Fidiasek egindakoa. Tenplu honetako frontoien dekorazioa benetan esanguratsua da. Ardatzean Apolo dugu eta alboetan, ispilu efektua eginez, pertsonaiak multzoka kokatzen dira. Zentauroen eta lapizen arteko borroka aurkezten digu gai moduan. Gorputzen tratamendu bikainak, klasizismoaren ezaugarriak adierazten ditu. Fidiasek oihalen tratamendua bikaintasunera eraman zuen, eta hori hemen ere argi ikus daiteke. Batez ere, emakumearen gorputzari aplikatzen zaio, bikaintasuna eta edertasuna adieraziz. Denborarekin, oihalen trataerak gorputzaren anatomiaren sujerentziari lagungarri egingo zaio.

#### Partenoieko mendebaldeko frontoia.

Fidiasek ere egin zuen hau. Hala ere, aplikatutako estiloa, libreagoa, konplexuagoa eta aberatsagoa da. Ardatzean ez dago eskultura nagusirik kokatuta, beraz, esan daiteke, bertikaltasuna era sutilago batean adierazten dela. Alboetan berriro irudiak multzokaturik antolatzen dira. Olinpoko jainko-jainkosa guztiak daude bertan, Atenas babesteko.



### 4. HELENISMOA.

V. mende ia osoan, Peloponesoko gerraren ondorioz, Atenasen nagusitasuna galdu zen eta bertan finkaturiko ezaugarri kulturalak eta balore guztiak aldaketa prozesu batean sartu ziren, krisialdi garaia izan zen.

Arkitekturan lan garrantzitsu gutxi egon ziren eta eskulturan ezaugarri asko aldatu ziren. Adierazpen plastikoen ikuspuntutik beraz, ezaugarri berezi batzuk nagusituko dira:

- Polisaren eskala galdu zuten, ondorioz, kultura "kosmopolitagoa" bihurtuko da kultura grekoa.
- Fedea, optimismoa eta gizakiaren nagusitasuna galduko da.
- Mitologiaren gaiak indarra galduko du ere. Platonek finkatu zituen balore moralak, hau da, erlijioa, zibilizazioa eta demokrazia krisialdian egongo dira.
- Idealismoa zentzu guztietan galdu zuten.

Filipo mazedoniarra, artearen bidez bere gortearen izaera grekoa finkatzen saiatu zen. Ikonografia berria sortu zuen: erretratu heroikoak. Alexandro Handiak, aitaren

jarrera indarrean mantendu zuen. Lisipo izan zen gorteko eskultorea eta honen erretratuak ondorengo erromatarren eredu garbia izan ziren.

### Eskultura:

#### Apoxiomeno. Lisipo.



Eskultura honetan Lisipok kezka berri bat erakusten du: 3. Dimentsioa menperatzea mukulu biribileko eskulturari dagokionez. Honek, aurrekotasunaren nagusitasuna gainditzea esan nahi du. Ikuspuntu ugari sortzea eta hau borobiltzeko gonbidapen zuzena eskaintzea hain zuzen ere. Hau lortzeko, Lisipok besoak aurreratu zizkion eskulturari. Ondorioz, mugimenduaz ohartzeko alboetatik ikusi beharra dago eskultura. Ondoren beste eskultoreek aplikatu zuten baliabide hau eta asko garatu zen.

#### Herkules.

Kontrapostoa galdu delarik, bera eusteko arazoak dituela dirudi. honetan gaztetasuna eta edertasuna dituela nabaria dugu. Indarra eta eroismoa galdu eta esan beharra dago, anatomian exajerazio nabari dela.

Eskua ezkutatuta dauka, aurrekoarekin lotuta, aurrekotasunaren galtzea adierazten du, atzera nolabaiteko intriga sortuz.

Lisiporen lorpena da ere, atzealdeari lehenengoz ematea.



bakarrik  
Eskultura  
galdu  
ditu ere  
gehiegi

begiratzeko

garrantzia

Hau guztia laburtzearen, helenismo garaian, aurrekotasuna galdu zuen eskulturak eta besoen bidez hiru dimentsioak bilatzen dira, espazioan hedatzen. Eskala oraingoan 1/8koa izango da. Kontrapostoaren oreka hautsi egiten da, forma ezberdinak emanez. Eskulturaren atzealdea landuta azalduko da eta eszenografia bultzatuko da. Ezaugarri guzti hauek, Erromak ondoren edango duen iturrian bilakatuko dira.

#### Pergamoko akropolia eta aldarea. K.a. II.mendea.



Ardatzaren nagusitasuna, kolosalismoa eta bikoiztasuna adierazten dizkigu Pergamoko akropoliak. Aurrekotasuna galdu egingo du honek ere, bai eta egituraren bikoiztasuna. Kolomata joniarrak argi ikus daitezke. Aldare honetan helenismoaren artearen nagusitasuna islatzen da, izan ere, eskultura eta arkitekturaren aldetik garaiko garrantzitsuenetarikoa da.

## Arte etruskoa eta erromatarra: K.a. VII. mendea - 476.

### 1.ARTE ETRUSKOA.



Errepublikara garaia arte, nagusitasuna Etruriak izan zuen. Oso kultura aberatsa izan zen. Baina jatorria ilun dago. Ez da haien hizkuntza deszifratu oraindik baina esan ohi da, ekialdetik etorritako jendeak sortu zuela kultura hau. Gehienbat ezaugarri fisikoetan nabarmendu zen.

Greziarekiko lotura handia izan zuen kultura honek. Izan ere, Grezia kontinenteko Aro Iluneko eta ondorengoko arte geometrikoaren garaia ziren bitartean, mendebaldean kultura etruriarra finkatu eta nagusitu zen.

Etruriarren mugimendua oso interesgarria da; luxuzko gustua zuten eta Greziako artearen handitasuna bereganatu zuten. Etrurian VIII.mendean goraldia izan zen, beraz luxua bertan garatu zen bai eta edertasunaren kontzeptu berriak eta artisau adituen agerpena.

Arkitektura izan zen kulturalki etruriarren adierazpenik garrantzitsuenetarikoa.

#### 1.Hirigintza:

Hiriak gotortuak, erregularrak eta ate monumentalekin eraiki zituzten.

Barruko eremua kardok (ipar-hego ardatza) eta dekumanoak (eki-mende ardatza) osatzen zuten. Horien artean sortzen zen etxe multzoari insulae esaten zaio. La zatitan banatuta beraz,ardatzen buruetan atariak zituzten. Erdian, sakrifizioak egiteko putzu bat (mundus) kokatzen zuten.

Ondoren, harresietatik kanpo santutegiak eraikitzen hasi ziren, bai eta, monumentuzko hilobiak ere, Greziaren eragina zutelarik.


## 2.Tenplua:

Greziako eragina eta tokiko erlijioaren ezaugarriak hartu zituzten tenpluek. Material xumeak erabiltzen zituzten: zura eta adobeak. Hala ere, zimenduak harrizkoak izaten ziren. Taulamentuak eta kolomak zurezkoak ziren eta dekoraziorako askotan terrakotazko xafla pintatuak jartzen zituzten.

Podio baten gainean kokatzen ziren eta eskailera soilik alde bakar batean zituzten; horretan ekialdeko eragina nabaria da. Horretaz gain, hiru nabe dituzte.

Vitrubiok idatzi zuen tenplu hauen deskribapena, eta bere hitzak jarraiki maketak eraiki ziren.

### Jupiter kapitoliarraren tenplua VI.mendea.



Esan bezala, plataforma baten gainean dago. 6 koloma dituen fatxada esanguratsua dauka. Grekoa dirudi, baina atariaren oina ez da batere grekoa. Gainera hiru nabe ditu. Horren interpretazio bi daude: gela bakoitza jaingo bati eskainita dago eta bestea, nabe printzipal bat dago soilik, gainontzekoak sekundarioak dira.

### 3.Hilobiak:

Hasiera batean, hildakoak erraustu eta ontzietan sartzen zituzten, denborarekin ordea, monumentaltasuna hilobietan ere garatzen hasi ziren. Hasieran, hilobi txikiak eta xumeak izan ziren baina VII.mendetik aurrera, etxe modukoak egin zituzten. Izan ere, hauek, hil ondorengo bizitan, bizitza normaleko etxeetan pasa behar zutela uste zuten.

(A dado): egitura sinplea, bata besteren elkarren segidan jarritako hilobiak dira.

Hauek, gehienbat eguneroko bizitzako pasarteekin zerikusia zuten irudiekin dekoratzen zituzten.

### Hipogeoak:

Mediterraneo osoan zabaldutako hilobiak dira. V.mendean datatzen dira. Hiru, lau edo bost gelako eraikinak dira. Egitura gero eta konplexuagoa bilakatu zen denboraren poderioz. Kupula zuten batzuetan.



## 4.Eskultura:

Grezia abiapuntutzat hartu bazuten ere, beraien izaera propioa sortu zuten. Dekorazioaren zentzu berezia burutu zuten. Forma grekoak bereganatu zituzten, izpiritua ez ordea.

Vulci zentauroa (K.a. 580).



Hemen ikus daitekeen bezala, proportzioa ez zuten mantendu etruriarrek. Animaliak, forma gizatiarra nagusitzen zuten hauen ikuspuntuetan. Vulca eskultorea da ezagunena. Irribarre etruskoa dauka eskulturak eta ez du oihaletan lanketa fina lortzen.

Arezzoko kimera. (K.a. 370).

Brontzegintzan lanketa fina garatu zuten. Animalia apotropaikoak izan ziren ohikoenak. Hauek, funtzio babeslea zuten. Edonon kokatzen zituzten horrelako animaliak. Duda dago ia Erdi Aroarekin lotu daitezkeen. Eskultura honen kasuan, buztana eta burura adibidez guztiz grekoak dira.



## 5.Hilobietako dekorazioa:



Poliki, harrizko sarkofagoak agertuko dira, gustu gizatiar eta finagoarekin. Sarkofagoak dira, baina bertan ez daude gorpuak.

### Caere senar emazteak. (K.a. 510).



Oso bizia da. Zizelkaketa fina eta oso espresiboa dauka. Hala ere, hankei ez zaie garrantzirik ematen eta ia ez daude landuak. Beraz, goi aldea lantzen zuten, beheko aldea inporta ez balie bezala. Honetaz gainera, Villa Giuliako senar emazteen sarkofagoa ere esanguratsuak da.

#### 6.Horma pintura:

- Kronologikoki, K.a. VI-I.mendera bitartean.
- Funtzioa: erlijiosoa, hilobi erritoak eta sinesmenak.
- Naturaren miresmena, pintura deskribatzailea eta bizitasunez beteta.

#### **-Gaiak:**

- Estiloa: eragin grekoa.
  - \_Koloreen konbentzionalismoa mediterraneo osoan. (emakumeak eta gizonak).
  - \_Eszenak zirrindetan ordenatuta.
  - \_Simetriaren printzipioa eta irudiak aurrez aurre.
  - \_Sakontasunik gabe.
  - \_Kolore lauak.

-Teknika: azaldura kareatua. Luzitutako paretetan, ziztaduraz perfilen ingeradak markatu eta ondoren koloreztatu. Teknika azkarra da eta zuzentzina. Bandelliren esanetan, kartoizko edo egurrezko ereduak erabiltzen omen zituzten.

### Lehoien hilobia. K.a. 520.



Animalien adierazpenak oso biziak ziren. Eta kideen organizazioa eta posturak greziarretatik jasoko dituzte zuzenean.

Lehoien erdian pilare bat dago eta simetria argi eta garbi ikusten da. Azpian, sazerdoteak eta dantza eszenak irudikaturik daude.

## 2.ARTE ERROMATARRA.

Erromak iturri ezberdinetatik edan zuen bere nortasun garrantzitsua osatzeko. Hirigintza eta arkitektura etruriarrendandik bereganatu zituen eta gehienbat Greziatik gustu fina. Tenpluaren egiturari dagokionez, Greziatik hartu zituzten formak, hala ere, sarrera etruriarra, alegia, bakarra jarri zuten.

Erromatar kultura oso berezia izan zen. Errepublika, monarkia eta inperioko arte adierazpen ezberdinak sortu zituen. Monarkia garaian (K.a. 753-509) Etruriarekin lotura zuzena izan zuten, errepublikan (K.a. 509-43) eta inperio-aldian (K.a. 31-K.o. 476) aurreko garaiekiko oso ezberdinak ziren aztarna artistikoak aurkitu zituzten. Inperioa, testuinguru berezia izan zen, izan ere, monumentaltasuna eta handitasuna forma plastikoen lengoai baten bidez adierazten hasiko dira.

### 1.Arte erromatarren berezko nortasuna:

Gizarte antolaketa berezia garatu zuten erromatarrek. Hiriaren zentroan, zibilizazio hiritarra bizi zen, baina hala ere, nekazaritzari lotutako pentsaerak edo nekazal munduarekiko nostalgiak ematen dio erromatar kulturari izandako izaera berezia. Hauen balore nagusiak, bizitza latzeko ohiturak, hots, ohitura xumeak ziren: baserriartasuna, xumetasuna eta izpiritu praktikoa gehienbat. Hau zentzu artistiko ia guztietan plazaratu zuten; literaturan, hiri antolaketan..

Elementu guzti hauek, artegintzaren aurreko jarrera berezia eragin zuten:

-Utilitas: erabilgarritasuna. Balorerik handiena izango da, balore estetiko hutsaren gainetik.

-Greziar kultura konplexua miretsi: bilduma zaletasuna, batez ere K.a. I.mendetik aurrera.

Beraz, izandako eraginaren aldetik nagusitzen direnak, tokiko tradizio italiarra (Etruria) eta inportatutako grekoa dira.

### 2.Hirigintza:

Hirigintza etruriarrendandik hartu zuten. Erregulartasuna, funtsezko ardatzak eta izandako antolaketa konplexuak, Etruriarren asmakizunak dira.

Bilbe barruan, lehen arkitektura modernoa nagusituko da eta ekarpen interesgarriak egongo dira materialetan, eraikuntz teknikan eta materialen erabilera berrietan:

-Marmola preziatua zuten, baina honen faltagatik, adreilua, harria eta puzolezko hormigoia erabili zuten gehienbat.

-Puzolezko hormigoia: sumendiko hautsa zuen oinarrizko osagaia. Hautsa, karea eta ura nahastu eta kimikoki gogortzen dira. Funtsezko formula honekin beste material gogorak ere nahasten zituzten, oro har, obra hondakinekin. Hormigoi teknika honek, eraikuntz teknika berezien sorrera eragin zuen. *“Tecnología arquitectónica hasta la revolución científica”*.

-Opus regularitum.

-Opus infertum.

-Opus testaceum.

### 3.arkitektura:

#### **3.1.Errepublikara garaiako arkitektura:**

Garai hontako arkitekturak aztarna gutxi utzi ditu, izan ere, suntsiketa pairatu ostean, gainean eraikin berriak eraiki ziren ondorengo urteetan. Hala ere, ezaugarri nagusiak ondorengoak dira:

-Funtzionaltasuna.

-Proporzio ez monumentalak.

-Egitura dintelduna orokorrean.

-Tipologiak: etxeak, villae, mausoleoak eta teatroak.

#### **3.2. Inperialdiko arkitektura:**

-Monumentaltasuna.

-Erraldoitasuna (handitasuna).

-Egitura arkudunak, gangatuak eta kupuladunak.

-Tipologiaren aberastasuna.

-Erromatarren ordenen erabilera ugaria: toskaniarra, doriarra, joniarra, korintiarra eta konposatua. Grekoek euskarrien ahalmena kontuan hartuz, ordenen erabilera finkatu zuten. Erromak hauek errespetatu eta bereganatu zituen.

-Greziar, kolomak elementu tektonikoak ziren, euskarriak eta hormak koloma artea estaltzeko, barruko espazioa



definitzeko eta ixteko ziren soilik. Erroman murrua (horma) elementu tektoniko bihurtu zuten eta zutabeek ez zuten funtzio tektonikorik.

#### Koliseoaren altxaera/ebakidura.

Egitura esplikatatu.

#### Arkua eta bere erabilera:

- Arkuak eta pilareak dira elementu sostengatzaileak, tektonikoak.
- Arkuteriaren eta zutaberiaren konbinazioak sortu zituzten antolamendu sistema berriak.
- Arkitektura faltsua edo ez tektonikoa eta enkoadramenduzko arkitektura (arkua elementu sostengatzaile duena). Hori koliseoan argi ikus daiteke.
- Arkua eta pilarearen konbinazioekin masa horizontal astunak arintzen zituzten.

#### Zutabe erraldoiaren erabilera.

Zutabeek funtzio sostengatzailearik gabeko erabilera zuten Erroman: maxentzioren basilika dugu adibide.

Inperioaren garapenean ere elementu garrantzitsuak izan zirenak ondorengoak dira: Galtzadak: harlanduen bidez egiten zituzten. Euskal Herrian ere galtzadaren erabilgarritasuna eta garrantzia bizirik mantendu zen Erdi Aroan eta XVIII. mendera arte indarrean mantendu ziren.

- Galtzadaren funtzioa: ekonomikoa, soziala eta militarra.
- Euskal Herria zeharkatu zuten galtzadak: mediterraneorantz eta penintsulako ipar mendebalderantz eta Akitaniarantz bideratu ziren.
- Bibresca eta Mirandatik iparralderantz, Pirinioetatik, Ibañeta Ganatik, Tullonium (Dulantzi)Arakil eta Iruña zentrotik igarotzen ziren inportanteenak.

#### Tipologia bereziak:

**Etxebizitzak:** hiri etxebizitzak, villae (landa etxeak) eta jauregiak bereizten dira.

-**Domus** goi mailako gizarte klaseen ohiko etxebizitzari deitzen zaio. Batez ere, bere konplexutasunaren aldetik inperio garaian garatu eta zehaztu ziren. Oraindik ere, mediterraneo osoan daude islamiar estiloko etxeak honen ezaugarriekin lotzen dira. Sarrerari fauces esaten zaio. Ondoren inpluvium ura jartzeko lekua dago, eta jarraian compluvium teilatuko leihoa ura jauzteko, patio moduko bat. Tablinium egon gela moduko txiki bat da. Ondoren jantokia egongo da eta azkenik eremu pribatu bat. Lorategi antzekoa dago eta azkenik, peristilum eta cubacula izeneko lo gelak.

-**Insulae.** Etxebizitza xumeak: Bi, hiru, lau edo bost solairuko etxebizitzak ziren. Alokairuko etxebizitza multzoak ziren. Batzuk jabedunak ziren eta besteak gobernuarenak. Funtsezko ezaugarria barneko patioa da. Eta honen inguruan, etxebizitzak antolatzen ziren pisu ezberdinetan kokatua.

- **Villae.** Hirietatik kanpo dauden etxebizitzak. Landetxea. Errepublika garaian, eguneroko bizitza eta nekazaritzarako elementuak gordetzeko erabiltzen ziren. Ondoren gero eta luxu gehiago lortuko dute, oparagoak izango dira ez hain funtzionalak.

#### **Tenpluak:**

Tenplu erromatarrak iturri grekoa dauka gehienbat baina etruriarra ere bai. Greziatik, ondorengo ezaugarriak hartu zituzten: formen erregulartasuna, kolomen erabilera

eta ordenak. Etruriarrendik berriz, fatxada nagusi bat ipintzea, podiumaren erabilera eta eskailera bakarreko sarrera.

Tenplu grekoak, erromatarrek ez bezala, funtzio erlijiosoa zeukan, izan ere, soilik eskulturaren gordelekutzat zituzten. Erromatar tenpluak, hiritartasunaren ospakizun bezala ulertu behar. Erromatarrek errituak egiteko erabiltzen zituzten. Barneko espazioaren definiziorako elementu berriak jarri zituzten. Eta zentzu orokor batean, esan daiteke, tenplu introbertidoak, hau da, barrutik ugaltzeko (barruko espazioaren nagusitasuna) eta tektonikoak, plastikoak baino zirela. Beraz, pareta kanpoarekiko espazioa ixteko erabiltzen zen. Eta kolomaren erabilera plastikoak desagertu egiten dira.



Mason Carreé.

Portunus tenplua: fortuna viril.k.a. 70-40. Joniarra da.

Tenplu zirkularraren tradizioa Erroman ere eman zen. Ikusgarriak orain diren bakarrak hemen:

Vesta tenplua. Monarkia garaikoa. Kolomata korintiarra.



Herkules Victor Olivariusen tenplua. K.a. I. mendea.



Interesgarriena Erromako Panteona dugu. Agriparen tenplua hain zuzen. Augustoren garaikoa da, Augustoren alabarekin ezkonduakoa izan zen Agripa, honek bultzatu zuen Panteonaren eraikuntza.

Orain, plaza batean dago, baina garaian gune zabalago batean kokatuta zegoen. Orain arkitektura estutu egin da. Planta nahiko konplexua da. Egitura erregularra ikusten dugu, plazatik sartzen denean, fatxada greko edo greko antzekoa dauka, frontoi eta kolomak dituelarik. Baina atzealdean, egitura



zirkularra dauka, hori da tenplu honen elementurik interesgarriena bai tipologiaren aldetik baita arkitekturaren aldetik ere.

Lehendabizi danborra eta ondoren trantsiziozko eraztuna dago, honen gainean, kupula semi esferikoa dago, kasetoiduna dena. Opeionetik argia sartzen da.



**Eraikuntza teknika:** hormigoizko kupula daukagu. Tamaina honetako kupula baten pisua sostengatzeko, arkitektoak teknika berezi bat asmatu zuen. Barneko eta kanpoko egitura bikoiztu egin zituen eta barnean hormigoia ipini zuen. Pisua arintzeko, gero eta goiago, gero eta estuagoa egiten da kupula. Tartean, deskarga arkuak jarri zituen. Hauek, maila ezberdinetan kokaturik daude, pisuaren bultzadak desbideratzearen.

#### **Hirietako monumentuzko ateak edo atariak:**

Erroman zazpi zeuden garai batean, baina gaur egun via Appia dugu. Defentsarako sarrera batzuk bikoitzak dira, hauek, defentsa moduko sistema burutu dezaten, estutu egiten dira. Behe aldean harri gogorak eta goi aldean adreiluak izan zitezkeen. Dorredun harresi modukoak ziren. Erdi Aroan gehienak mantendu ziren, hala ere, bertatik aurrera, gehienak desegin.

#### Foroak:

Foro Italiar erromatarra, agora greziarraren ereduari jarraituz garatu zen lehenengo monumentua izan zen. Dirudienez, Greziako hirigintzaren eraginaren artean sartu behar da.

Funtzionaltasuna: merkataritza eta hiriaren bizitza publikoaren esparrua, politikoa, soziala eta erlijiosoak. Eraikin batzuk forutik gertu zeuden, baina ez barruan, tenpluak, esparru erlijiosoak, basilikak, termak eta hiri honen ospakizunerako beharrezko elementuak.

#### Ponpeiako foroa.



#### Basilika:

Ospakizun sozial eta politikoak egiten ziren bertan. Oinplanta erregularra zuten ardatz nagusia agerian mantentzen zutelarik. Hasieran nabe bakarrekoak ziren, baina denborarekin hiru nabekoak eraiki zituzten, beraz ondorengo arkitektura finkatu zuten. Hiru nabe zituzten, hala ere, nagusia bat zen. Absidea zuzena eta erdi zirkularra zen. Hau arte paleokristauean eta erromanikoak ikusiko dugun eredu izango da.


#### Termak:

#### Dioklezianoren termak .k.o. 300.



Bañorako baino, ingurua zen esanguratsua eta barneko lorategiak aurki daitezke. Aldatzeko gela, liburutegia eta aldarearen gela ere badago honetan.

Marzelo antzokia, teatroa. K.a. I.




Anfiteatroa. Eraikuntza sistema oso berezia.



Circus. Maximok eraikitako zirkua, Erromako zirkurik handiena.

Auriga eta koadrigen lehiaketa.



#### 4. Eskultura:

Iturri ezberdinetatik hartu zituzten ezaugarriak erromatarrek. Grezia helenistikoaren formen lengoia eta Etruriako naturalismoaren eragina jaso zuten. Bi iturri hauetatik, Erromak bere izaera zuen eskultura berezia sortu zuen. Forma oso xumeak eta garbiak, gai oso sinpleak eta errealismoa izan ziren erromatar estiloa markatu zuten ezaugarriak.

Erromako artea burutu zuten langile asko greziarrak izan ziren.

Materialak:

- Material anitz: harri gogorra, marmola..
- Brontzea (erraztasun teknikoa baliatuz).

Teknikak:

- Azal oso landuak era bikain batean.
- Argi-ilunen efektua gustukoa zuten: gorputzetan, ilean, oihalean..
- Trepano teknikari esker joku luminikoak lortu. (argi-iluneko ileen trataera).
- Efektu piktorikoak (sfumato), forma borobilduak.  
Sfumato: gorputzen azalak oso landuak eta borobilduak egiten dituzte.  
Eta azalaren tratamendu perfektu honi esker, argiak efektu irristagarriak egiten ditu azalaren gainean, distira moduko bat sortuz.
- Kolore anitzeko materialaren konbinaketa egiten zuten. Kolore ezberdineko harriak erabiltzen zituzten eta hauen artean ere konbinatzen zituzten.  
Adibidez, marmola, kareharria, trabertinoa..

Eskultura erromatarren berebiziko generoa:

Erromatar garaian, benetan genero bereziak erretratuak izan ziren. Erretratu erromatar guztiz berriak izan ziren. Goi mailako klasekoek bere erretratu egiteko aukera zuten: lus imagine. Hauek, buruaren irudikapenak ziren. Ondoren

bustoa ere gehitu zitzaion, gorputz osoko irudia egin arte. Hemendik datorkigu gorputza eta buruaren erabilera ezberdinak. Gorputzak modu industrial batean egiten zituzten eta ondoren hauei buruak gehitzen zitzaizkion.

### **5. Erliebea:**

Erliebe historikoak dira, garaiko enperadoreen ingurukoak. Ara Pacis izango da Erromako Augustoren garaiko garrantzitsuenak. Augustok bultzatu zuen honen eraikuntza eta sakrifizio mahai txiki bat jarri beharrez, tenplu moduko aldea bultzatu zuen. Guztia erliebez dekoratuta dago, erliebe altuera ezberdinak, jarrera, posturak eta gai ezberdinak daudelarik.



Honetaz gainera, II. mendean Trajanoren koloma agertuko da.

Zirrinda baten forma dauka eta irudiek “desenroiatutako” papiro bat dirudite, irakurriko balu bezala.



## 2- Erdi Aroko arte estiloak ( K.o. III. mendea - 1453/1492).

### 2.1- Jatorrizkoa arte kristaua: III. mendea - V. mendea. PALEOKRISTAUA.

Erdi Aroko lehenengo estilozat hartzen dugu arte Paleokristaua. Antzinaroaren eta aro erromanikoaren bitartekaria da. Ezaugarri estilistiko asko, antzinaroaren berberak direla garbi ikus daiteke.

Klandestinitatetik (Kristoren jaiotzetik), estatu erlijio izatera 300 urte iraun zuen. Doktrina berri hori, I.mendeko lehenengo erdialdetik zabaldu zen: Palestina, Siria, Asia txikia..

Pauloren eskutik, Greziara sartu eta Erromaraino iritsi zen jatorrizko kristautasuna. (64.urtean Petri eta Paulo Erroman hil ziren Nernonen jazarpenaren biktimak). Berehala, hazkunde azkarra izan zuen. 313. Urtean, Milango ediktuan askatasun erlijiosoa jesarri zen. 333. Urtean Konstantinok, Konstantinoplara eraman zuen hiriburua. Azkenik, kristautasuna Teodosioren eskutik, IV.mendean eman zen, kristautasuna estatu erlijioa bilakatu zuelarik. Eta hori, arte formen eta helburuetan islatu zen, klandestinitatetik handitasunerako bidea jarraiki.

Inperioaren banaketa: Teodosio hil ondoren, 395.urtean, bere semeen artean banatu zuten inperioa. Ekialdea, Konstantinopla Arkadiorentzako eta mendebaldea, Erroma Honorariori eman zioten. Bi eremuetan garapen historiko eta tradizio ezberdinak garatu zituzten. Ekialdeak eragin helenistikoa izan zuen. Pisu izpirituala nabariagoa zuen honek, kristautasun iturrietatik eta filosofia grekotik gertuagoa zegoen. Mendebaldean berriz, kutsu erromatarra jarraitu zuten.

#### Arte paleokristauaren iturriak:

Antzinate berantiarreko kultura helenistikoa, Erromaren ikuspuntutik pasa ondoren eta erromatarren kultura eta gizartearen ereduaren emaitza da.

#### 1.Milango ediktuaren (313.urtea) aurreko arkitektura:

##### 1.Domus Ecclesiae: etxe arrunten gune bereziak.

Hasieran kultura eta errituak etxe arrunt eta pribatuetan ospatzen zituzten. III.mendetik aurrera, hauek ospakizunetara moldatu ziren, eta Domus Ecclesiaeak sortu ziren. Erromatarrek, Sirian hiri bat sortu zuten: Dura-Europos, gaur egungo Siria dena. Eta bertan, Domus Ecclesiae ugari aurkitu ziren.

##### 2.Katakunbak: ehortze guneak.

Hilobiak dira. Hileta kultuak egiten ziren bertan. Bestelako kristau kultuak oso gutxitan. II.mende azkenetik- VI.era iraun zuten hauek. Solairu batzuk dituzten galeria lurperatuak dira, eta bertan ondorengoak aurki daiteke:



-Gorpuak uzteko: loculi.

-Ibilbideak, pasiloa: ambulacra.

-Ambulacra elkartu ziren zabalgunek: cubicula.

-Batuetan, pertsona garrantzitsua izanez gero, tipologia monumentalago batez eraikitzen zituzten. Kripatak eta kanpoan arkuak eta bi koloma jarriz: arco soleum.

#### 2.Milango ediktuaren (313.urtea) ondorengo arkitektura:

##### 1.Basilika Paleokristua.

Multzo handiko jendea biltzeko gunea da. Antzinate berantiarreko arkitektura profanoen ereduak bereganatu eta aldaerak sortu zituzten.



- Bilera areto handietarako: basilika eredutzat hartu.
- Oroigarrizko elizak: martyrium-a aprobetxatu.
- Oinplano zentralako egiturak: bataio-elizak, mausoleoak..

Konstantino garaian, bestelako orientazio berria hartu zen: arkitektura kristaua independentea sortzeko bultzada ikusgarria izan zen.

Lehenengo eredutzat, Letrango basilika dugu.

-313-319.urte inguruan, Konstantinoren agintaldian eraikita.

-1. Bilera- areto kristau handia izan zen.

-Ereduak edo iturri tipologikoak: foroetan zeuden basilikak eta juduek ekialdean zituzten basilika antzeko gune irekiak.

-Basilika honetan finkatu ziren ondorengoetara eramango ziren ezaugarri ugari:

-Barne antolamendu espaziala.

-Arkitektura elementuak: koloma eta arkuteriaren erabilera, egitura gangadunak, zurezko estalkia eta isuri bateko teilatuak.

-Jendea, habetartean (basilikaren gorputzean) biltzen zen. Presbiterioan, sazerdoteak edo apaizak egoten ziren soilik.

a)Nartex: trantsiziozko sarrera da. Batailatu gabeak eukaristiaren garaian bertan gelditzen ziren.

b)Habetartea: 3 edo 5 nabekoa izan daiteke. Erdikoa zabalagoa eta altuagoa da. Arkuduna eta kolomen ilara zegoen bertan. Foroetako portiko kolomadunen antzekoa da.

c)Gurutadura: zeharkako habeartea.


d)Absidea.

e)Alae: alboetako besoak.

f)Garaipen arkuak.


g)Martyrium: basilika batean dagoen hilobi gunea.

Jerusalengo hilobi santua eta piztueraren eliza. (Santo Sepulcro).




Ardatz zuzeneko egitura basilikala eta luzetarako ardatzaren egitura batzen dira.

Santa Sabina. 422-432. Erroma.



Konstantino ondoko basilikaren formarik burutuena izan zen gurutzadurarik gabekoa.

Santa Konstanza IV.mendea.



Oinplano zentralako basilika. Hilobi eliza da, Konstantinoren alabaren mausoleoa hain zuzen ere. Barneko espazioa beraz borobila da, ganga anularra duelarik.

### **3.Pintura:**

Teknika eta forma sinpleak ziren. Ingeradak eginez, eskematizazio joera erakutsi zuten. Errealismo gutxi dute paleokristaueko pinturak, hauetan garrantzitsuena mezua baita.

Kolore lauak erabiltzen zituzten; normalean gorriak, horiak, berdeak..

Ez dute argi-ilunen efekturik sortzen.

Irudien adierazgarritasuna buruaren itxuran zentratzen dute: ahoan, begietan, aurpegian.. Gorputzean berriz, detaile gutxi jartzen zituzten. Narrazioan lagun dezakeena soilik erresaltatzen zuten. Beraz, edukiak berehala ulertzeko eginda zeuden pintura paleokristuak. Azkenik, narrazioa pasartearen une espezifikotan eszenifikatzen da.

## **2.2.eta 2.3. Europako inbasioen garaiko artea eta aurrerromanikoa.**

### **Aipamen orokorrak:**

#### **1.Alde historikoa:**

1. V-VI-VII-VIII: inbasioen Europa. Muga kronologikoak: Romulo Augustulo azken enperadorea (476) eta Pipino laburraren (751-768) dinastia karolingiarren sorrera.
2. VII.mendearen bigarren erdialdetik aurrera, elizak eta printze familia frantziarrak lehendabiziko inperio kristaua finkatu zuten: karolingiarra. Karlomagno enperadore izendatu zuten. Arte karolingiarra 877.urtetik.
3. IX.mendean Britainiar uharteak eta asturiarrak ziren botere karolingiarretik kanpo gelditzen ziren bakarrak.
4. Inperio karolingiarren krisialdia: Oton (936-973) "Sacro" inperio erromatar-germaniarren eskutik, arte otoniarra burutu zuten.

#### **2.Alde kulturala:**

1. Herri barbaroek berrikuntza sozialak ekarri zituzten.
2. Kulturalki oso aldaketa txikia bizi zuten. Kultura material nagusia erromatarren herentzia izan zen eta artearen gaineko eragina oso mugatua izan zen.
3. Herentzia erromatarrak eta herri nomadek antolaketa berria sortu zuten: erdi aroko kultura.
4. Beraz, prozesu honekin batera, tokiko tradizioak aipagarriak dira, (Britainiarra eta hispaniarra) eta tradizio karolingiarrak arte erromanikoa eratorri zuten.

### **Europako inbasioen garaiko artea: VI. mendea - VIII. mendea.**


Mendebaldeko Europako adierazpen artistikoak Inperio erromatarraren hondamenetik (756.urtea), dinastia karolingiarra sortu artean garatu ziren. Kulturalki, Erromako nagusitasun kulturala ezagutzen zuten eta hauen ohiturak mantendu zituzten. Hala ere, herri hauen iturri kulturalak germaniarrak eta erromatarrak izan ziren.

Adierazpenik garrantzitsuena miniatura dugu, harri bitxien lanak oso garrantzitsuak izan ziren. Ondoren monumentuzko arkitektura.

### **Ikus arteak:**

Atzerapen artistikoa bizi zuten herri hauek. Beren adierazpen artistikoetan gustu estetiko primitiboa ikusgarria da. Arkitekturaren ez zuten inolako berrikuntzarik ekarri; harlandua, arkuak eta material ezberdinak erabiltzen jarraitu zuten. Eskulturaren aldetik, irudigintza xumea garatu zuten. Miniatura izango da hauen adierazpen artistiko aipagarriena.

Formen aldetik:



Formen aldetik beraz, oso irudi linealak dira. Deskriptiboak eta antinaturalak. Mezua formaren gainetik zegoen eta kode formal berezi bat finkatu zuten sinbolismo berezia adierazteko.

### **1. ARTE MEROVINGIARRA.**

Galia erromatarra hondatu zuen herri merovingiarrak. (V-VII). Hauek, hiriburua Parisen jarri zuten. Kristautasuna onartu eta eraikuntza bizi sortu zuten, batez ere erlijioaren alorreko eraikuntzetan, gehienbat bataiategiak.

Eredua, Poitiers-go San Juan. (V-VII) dugu.



Oinplano erregularra eta altxaera modularra duen eraikuntza. Espazioa geletan banatzen da. Kanpotik, era xume eta sinplean arkitektura erromatarrek erabilitako elementuak kopiatzen saiatzen da: adibidez, pilastra, erdi puntuko arkuak eta mitra arkuak.

### **2. ARTE ANGLO-IRLANDARRA.**

Kristautasuna oso errotua izan zuen kultura honek. Adierazpen nagusia *Kells* liburua IX. mendearen hasieran idatzitakoa. Liburu honek, hain aipagarria zuten miniaturaren berri ematen digu.

Ez zuten erromatarren eraginik izan. Frankoak, sajoniarrak eta feniziarrek eragin zuten irlan. Beraz, irlandarrek ez zuten tradizio klasikoa ezagutu eta estilo zeltiarra mantendu zuten. Kolore urriko estilo lineala garatu zuten. Hauen ikonografia berezia ondorengoa izan zen: maiestas (tronua), kristoren adierazpen berezia (ilehoria, begi urdinak eta ile luzea) eta oihalen forma klasikoak (frankoek eragina).

Ekarpenik garrantzitsuena: miniatura.

### **3. ARTE BISIGODOA. V-VIII.**

Arte hispaniarren jatorria izango da, islamiarrak penintsulan sartu zirenean. Urregintzaren erabilera goren burutu zuten.

#### **Arkitektura:**

-Materiala: harri gogorrean harlandua. Era berezian landuta (zabalera/luzera - ertz)  
+adreilu erromatarra.

-Oinplano basilikala do gurutze grekoa. Batzuetan biok elkaturik agertu dira, honen ondorioz barrualdeko espazio modularra unitatetan banatzen da.

-Abside zuzena: alboetan sakristia moduko gune bereziak daude “protesis” eta “diakonikon” izenekoak. Presbiterioko kapera eta tenplua “ikonostasio” baten bidez bereizten dira. Eragin bizantziarra da hori.

-Atari txikiak dituzte; bai alboetan bai eta mendebaldean. Hala ere, eraikuntzak ekialdera bideratzen zituzten.

-Elementuak:

-Ferra arkuak: Abiatze lerrotik gorantz zabaldu eta estutzen den arkuak, gailur-alde biribila dauka.

-Euskarriak: kolomak eta pilareak. Askotan ordean, orden korintiar oso sinpleko edo enbor formako zimazioak zituzten.

-Estalkiak: gangadunak (kanoi ganga edo ertz ganga) eta gurutzaduraren gainean kupula jartzen zuten.

-Dekorazioa: geometrikoa (roleoak, esbastikak), animalien irudiak, landareak eta giza eszenak.

San Pedro de la Nave. Zamora.



#### 4. ARTE KAROLINGIARRA. VIII-IX.

##### Arte plastikoak:

Berrikuntzak bizi zituzten; mundu mediterraneoko oinarri estetikoak bereganatu zituzten eta arte klasikoaren ezaugarri estetikoak onartu ere onartu zituzten. Honekin batera, eragin bizantziarra ere izan zuten, Erromaren herentzia gorde zuena. Aurrekoekin batera ere, tradizio islamiarra hartu zuten, antzinateko kultura eta ekialdeko kristautasunaren formak mendebaldera helarazi zituzten.

Beraz, kulturalki oso aberatsak izan ziren, iturri ezberdinetatik hartu zituzten eragin ezberdinak, baina beti ere tradizio klasikoarekin fidelak izan ziren.

##### 1. Arkitektura:

Tradizio klasiko honekiko harreman plastiko eta formal zuzenaren adierazpen plastikoa burutu zuten. Hau da, lengoai klasiko bat errekuperatu zutela.

-Tipologiaren aldetik, oinplano zentralako eraikinak.

-Erdi puntuko arkuen erabilera.

-Kolomen erabilera, forma eta erabilera klasikoak. Erromatar erara.

-Gurutze erako pilarea.

-Eraikin erlijiosoen oinplanoa: hiru habeartekoa, absideduna, gurutzadura eta girola.

Akisgran-go Jauregi kapera ( VIII.mendeko azken urtealdia).




Geografikoki arkitektura asko hedatua zen, kultura

ezberdineko iturrietatik edan zuen, eta honekin batera oso berriak ziren elementuak ere hartu zituzten. Honekin guztiz finkatu ziren. Hala ere, asmakizunak ere egin zituzten:

-Westwerk: Dorredun fatxada monumentalak da. Bi edo hiru dorre izan ditzake; alboetako eta ardatzetakoak izan dezake. Orokorrean, bi solairuko egitura zuten. Beheko elementuari kripta deritza. Ez dago lurperatuta, atari ondoko gunek ilun bat da, kalea eta tenpluko habeartea lotzen dituena. Goikoa berriz, quadrum-a da. Tenplu txiki bat da, aldare eta tribuna alderantz irekitzen dena.

Korbey-ko Abadiako elizaren westwerk (873-885).



Honekin batera, garai Karolingiarrak edukiko duen elementurik interesgarrienetakoa monasterioak dira. Gaur egun ez dago aztarna materialik baina garai Karolingiarraren emaitza garrantzitsuenak agertu ziren:

Sankt-Gallen Monastegia (816-830).



Bi abside ditu; bata presbiterioan eta bestea sarrera ondoan. Beraz, eliza kontra-absidetua da. Oso bereziak dira eliza hauek. Ez dira gorde baino planoan ondo ikus ditzakegu ezaugarriak. Elizek eta klaustroek monasterioa osatu zuten, geroztik oso ondo finkatu zen ereduak izan zen.

## 2. Miniatura:

Garaiko adierazpenik nabariena, ederrena eta burutuena izan zen. Kalitate bikaineko artelanak izan ziren. Gizarte goi mailako klasekoen demandari erantzuna izan ziren. Kodizeak luxuzko artelanak ziren, materialak, bere oparotasunarengatik mirestuak izan ziren; urrea, harri bitxiak.. Tailer anitz sortu ziren.

### Eskola palatinoa:

- estilo aberatsa.
- linealtasuna.
- ornamentuzko aberastasuna.
- Kolare bizia eta paleta aberatsa eta distiratsua.
- konposizio konplexua, eszena eta narrazio konplexuekin.
- izaera ilusionistako eszenak eta klasikotasunaren herentziaren azken emaitza izan ziren batez ere giza irudien trataeran.

Adaren taldeko evanjelioa. Luka.

## 5. ARTE OTONIARRA. (X.mendearen bigarren erdialdetik-Enrike II.aren heriotza 1024 arte).

Otoniarrek dinastia sortu zuten, dinastia hasi zenetik amaitu zen arteko epealdiko adierazpen plastikoak aztertzeaz ditugu. Eskulturak garrantzi gutxi izan zuten. Arkitekturak izan zuen garrantzi gehiago. Arkitektura erlijiosoak dira eredu nabariena.

### Hildelsheim-go san miguel. (996-1033) + brontzezko ateak.



Eliza eta botere politikoaren elkar laguntza irudikatzen du. Errituak ugaritu hala, kripten garrantzia gero eta handiagoa izan zela nabaritzen da. Westerken egitura dorreduna mantentzen du. Oso arkitektura erregularra eta modularra da.

IX.mendean zehar finkatutako elementuak mantendu ziren, enperadore frankoen ereduak gordez (helburu politikoa). Betekizun liturgiko berriei erantzun tipologikoa eman zieten ezaugarri berriak ere agertu ziren: kriptak. Goialdeko elizen guneen dimentsioetara iritsi ziren.

Brontzezko ateak oso elementu interesgarriak izan ziren garai honetan. Zurezko arima baten gainean brontzezko xafla zizelatuak jartzen zuten. Brontzezko ateen tipologia finkatuko da ere.

Bertan eszenak egiten zituzten. Eredurik burutuena → Gilbertik egindako paradisuako ateak Florentzian. Hauek beranduagokoak dira, baina tipologia hemen sortu zen.



### Hildelsheim-go san migueleko brontzezko ateak./San Zenon.

## **6. ARTE ASTURIARRA.**

Toledoko monarkiaren herentzia berreskuratu nahi zuten, VIII.mendean, erregeek bultzatuta. Freskoen agerpen ugariak daude, eta palazio barneko dekorazio arkitektonikoa oso esanguratsua da.

### San julian de los prados (oviedo) Alfonso II.aren garaikoa.



Eliza honetan oso interesgarria da salbuespen bezala, barruko pintura. Fresko piktorikoak ziren. Gaur egun ez da oso ondo ikusten, baina garai batean pintura agertu zen. Jauregi batean ager zitezkeen dekorazio piktoriko eta arkitektonikoak zituen. Beheko zokaloak harria imitatuz margotuta daude eta goialdean elementu arkitektonikoak daude. Jauregi eliza bat da beraz. Erregeak bertan egiten zituzten erritoak.

## 2.4- Arte Erromanikoa: XI. mendea - XIII. Mendea.

Arte erromanikoaren izendazioa XIX.mendearen hasieran ezarri zen, inperio erromatarraren bukaeratik arte gotikorainoko adierazpen artistikoak definitu daitezzen, arte erromatarraren emaitzat harturik.

### Alde orokorrak:

Europa osoaren lehenengo arte komuna, Europa osoan hedatutako estiloa da. Europaren identitatea eraikitzeke oinarritzeko elementua da. Hala ere ez da batere homogeneoa. Eskola eta tokiko aldaerak zeudelarik, bere barnean, tradizio desberdinak biltzen dira.

### Kronologikoki: XI.mendetik XIII.mendera.

1. Testuinguru kultural berria.
2. Monastegien loraldia.
3. Peregrinazio garaia. Donejaku bidea.
4. Feudalismoa.

### Garapen kronologikoa:

-X.mendean eta XI.mendeko lehenengo laurdenean erromanikorako berrikuntzaren hastapenak garatu ziren: pirinioetako monastegiko elizak. Oso garrantzitsua → San marti del Canigó izan zen.

-XI.mendetik aurrera Erromanikoaren arkitekturak definizio akademikoa edo burutua lortuko du. -Harlanduen erregulartasuna.

-Gangak zurezko estaldurak ordezkatzeko zituzten.

-Kapitel narratiboak nagusitu ziren.

Horren adibide, San Pera de Robas (katalunia) dugu.\_\_\_\_\_



-XI.mendearen amaieran eta XII.mendeko lehenengo laurdenean erromaniko helduaren garaia izango da, bai arkitekturaren aldetik, bai eskulturaren aldetik, bai eta pinturan ere. Eskulturaren aldetik, ziklo historikoak edo narratiboak bizi izan zituzten, fatxadetan eta atarietan zabalitzen ziren. Dekorazio honek, mezu erlijioso transmititzea zuten helburu, ez ikasien biblia ziren, izan ere jendeak ez zekin ez irakurtzen ez idazten, beraz, irudien bidez zabaldu zen kristautasunaren mezua. Funtsezko gaiak itun zaharrekoak eta berrikoak dira. Berrien artean, Jesusen bizitzaren zikloak dira ohikoena. Batez ere, gurutze heriotza eta Jesusen berpizkundea.

Ripoll, Vezelay eta klaustroen artean, Moissac dira esanguratsuak.



### Ripoll-go Santa Maria.



Vezelay, Sainte-Marie-Madeleine.

### Moissac.



Horma pinturaren berpiztea gertatu zen. Leon-go San Isidoren errege panteoia da esanguratsua. Eskulturaz baino, pinturarengatik izan zen garrantzitsua, hala ere, pintura gutxi gorde da.

-XII. mendearen erldiadetik aurrera, mugimendu berritzaileek gertatu ziren; artearen aldetik, oso garrantzitsuak izan ziren aldaketak bultzatu zituzten. Orden berritzaileak sortu ziren, eta hauek, gauzak proposatu eta aldatu zituzten. Erromaniko garapen prozesuak haustura sufritu zuen, eta forma berriak bultzatu zituzten. Zisterrak, formen arazketa (garbiketa) bultzatu zuten, sinpletasunerako mugimendu nabaria hedatu zen Europa osoan zehar. Honi, arte zistertarra deitu izan zaio. Formen aldetik ere, batez ere Parisen, estilo berria sortu zen eta honi gotikoa deitu zitzaion.

### Arte erromanikoaren funtsezko ezaugarriak:

- Herrietako artea izan zen, ez zen hirietan garatu.
- Arkitektura da nagusi, pintura eta eskulturaren gainetik.
- Eliza erakundearen protagonismoa, arte erlijiosoa izan zen beraz. Tipologikoki arkitektura erlijiosoa.
- Arte didaktikoa: narratiboa, izaera deskribatzailea baino, izaera sinbolikoa izango du, horretarako pintura eta eskulturaz baliatuko dira. Adierazgarritasuna, errealismoaren gainetik.

### 1. Monastegiak:

-Leire.

- Cluny III.

910ean fundatuta. K.J. Conant-en arabera, jakin izan dugu nolakoa izan zen monasterio hau. Izan ere, gaur ez dira garai honetako monasterioak geratzen. Oso egitura konplexua dauka. Bost abetarteko eliza, bi isuri eta isuri bateko teilatua dauka. Presbiterio oso zabala eta garatua da. Absideduna da. Eta zuzena izan beharrean, beste gurutzadura bat ere garatu zuen. Erremate moduko absidiolo konplexua dauka. Klaustroa eta eliza ikus daitezke monasterio honetako planoan.





## 2.Elizak:

Monasterioarekin batera, elizak ditugu. Erromanikoaren ezaugarriak adierazten dizkiguten bideak dira elizak. Europa osoan hedatutako ereduak, erromesen joan-etorrien beharrei aurre egiteko tipologia berezia garatu zen. Tamaina handiko elizak eta gangatuak ziren. Hiru edo bost habearte zituzten eta oso leiho estuak zituzten, barneko iluminazioa berezia zelarik. Zeremoniak eskatzen zuen giroa, iluminazio eskasarekin lotura zuen. Tektonika oso konplexua zen, beraz, hormak oso sendoak ziren. Batzuetan, kontrahormen erabilera agertu zen. Erritoek eskaturiko egitura absidedunak eta monumentuzko fatxadak (bertan ziklo narratiboen agerpena) zeuzkaten.

## Fatxada erromanikoaren elementuak:

### →Moissacen fatxada.




- a. Tinpanoa: bertan dago dekorazio nagusia.
- b. Dintela: tinpanoa eusteko. Forma geometrikoko irudiak, erromanikoan oso ohikoa.
- c. Arkibolta: arkuak definitzen ditu. Oso dekorazio xumea, landare dekorazioa.
- d. Mainela: ataria eta egitura dintelduna eusten du.
- e. Ate-zangoa: dinteletik behera doazen elementuak.

## Oinplano erromanikoa:

Arte paleokristauaren bidez, ulertu behar dugu tamaina handiko oinplanoa. Eredu anitz daude.

1. Basilika oinplanta.
  - 3 edo 5 nabe.
  - gurutzadurarik gabe.
  - absideduna.
- 2.-Honekin batera, beste eredu moduan, gurutze latindarra ere oso hedatua izan zen.
  - gurutzadura.
  - girola.
3. Azken ereduak, gurutze grekoa dugu.

Saint-Front de Périgueux, post 1120.



### Estaldura erromanikoak:

Harrizko egitura dute eliza hauek eta kanoi ganga daukate estaldura moduan. Kanoi gangarrekin batera, ertz ganga ere erabili zen.

Beste estaldura interesgarria, labe ganga da. Erromanikoaren azken momentuetan ere nerbioi ganga ikusiko da. Eusteko egitura nerbioduna erabiltzean datza.

Kupulen artean, tronpa gaineko kupula eta petxina gaineko kupula bereiztu ziren.



## 1. Kanoi



1



2



3 eta 4.1.

4.2.

### Euskarriak:

Euskarri nagusiak kolomak dira. Koloma horietan, kapitel korintiar edo sasi korintiarrak aurki daitezke. Hala ere, hauek baino ugariagoak, dekorazio narratiboa duten kapitelak dira.

Pilareak ere beste euskarri batzuk ziren. Gurutze grekokoak edo karratuak izan daitezke. Soilak edo piramide kolomadunak izan daitezke biak. Hemendik etorriko dira, pilare kolomadun gotikoak izan direnak.

## **2.5- Arte Gotikoa: XII. mende amaiera - XV. Mendea.**

Frantzian sortu zen, eta beraz, eredurik burutuenak bertan daude. Hiriak Europa osoan zehar, aspektu guztietan eremu nagusiak ziren. Burgesiaren agerpena hiriarekin lotuta zegoen erabat. Merkataritza eta gremioen aldaketa gertatu zen. Unibertsitatearen sorrera ere eman zen garai honetan. Beraz, botere guinea hiriak izaten hasi ziren, eta nola ez arte eta kulturaren aldetik gunerik gorenak izan ziren.

Artegintza testuinguru hiritarrean.

-Gremioak sortu ziren. Hauek izango dira, produkzio artistikoak eta giza ekintzak elkartzeaz arduratuko direnak.

-Hirietan eragile berriak sortu ziren. Artea enkargatu eta ordaintzen hasi zen. Honi bultzada ematen garrantzi berezia erregeak, burgesiak eta nobleziak izango du.

-Eliza erakundeak oraindik ere, nagusitasun kulturala gordetzen jarraituko du, baina, monopolioa eskuz aldatuko da. Eman ziren berrikuntzek, mugimenduak leundu zituzten, ez ziren antzinean bezain zorrotzak. Eta zentzu berri honetan, unibertsitateak lortu zuen garrantzi berezia.

### **1.Arkitektura:**

Oso izaera bereziko arkitektura burutu zuten. Liturgia eredu berriei jarraiki, tipologia berezi bat sortu zen, katedrala. Honek aurretik ez zeuden zenbait garapen tektoniko gauzatu eta finkatu zituen.

Errenazimentuaren ikuspegitik, Erdi Aroko artea hondamen garaia bezala ikusi zen. Antzinaroan lortutakoa galdu zutela zioten. Teknika aldetik ordea, hau guztiz beharrezkoa izan zen berpizkundea gerta zedin.

Ilustrazioak, arte gotikoa Frantziaren bere biziko izaeraren islada materialtzat hartu zuen. Frantziak Italiaren gaineratik nagusitasun kulturala lortu zuen. Hau, arte gotikoaren eskerretan izan zen.

Arkitektura gotikoaren interpretazioa:

-Alemaniako eskola: izaera eskandinaviartzat hartu zuten, arte klasikoaren gaineratik jarritz.

-Frantziako eskola: alde tektonikoak, eraikuntza sistemak eta egitura formalak ezarri zituzten.

KATEDRALA.



Teknika berria zen eta forma garaiko filosofiarekin lotuta zegoelarik, esanahi sinboliko nabarmena adierazten zuen. Teknika aldetik, oso eraikin konplexuak dira eta eragin handia izango dute beregan teologia, moral, historiak.. Eragin hauek, arkitekturaren, eskulturaren eta beiragintzan gauzatuko dira. Panofskyk, eraikin gardentzat definitu zuen katedrala. Etika eta estetika lengoai berezi batean gauzatu ziren. Hori ikusgarria zen bai barruan, baita kanpoan ere.



Barne egitura kanpoan argi ikus daiteke: hiru habetarte, hiru mailako egitura barnean, hiru atari kanpoan eta hiru egiturako altuera.

Reims. Portada, 1255ean hasita.

Katedral gotikoen izaeraren elementurik esanguratsuen bertikaltasuna izango da. Altuera funtsezko aspirazioa bihurtu zen. Hau ahalbidezko, murrak arindu eta baoak (leihoak) handitu behar dira. Honen ondorioz, barruko argi-jokoak gertatuko dira eta beirateak eta rosetoriak agertuko dira, eraikina dinamikoagoa eginez.

Elementuen aldetik, goranzko zentzua azpimarratzeko arku gero eta zorrotzagoak txertatuko dituzte, arbotanteak sortuko dira hormak sostengatzeko eta pinakuluak errematatzen. Gurutze ganga ere txertatuko da. Horretaz gainera, pilareak eta kolomak aplikatu zituzten. Arku zorrotzen artean, fajoi arkuak eta formeroak zorrotzuko dira.

Egitura denboraren poderioz konplexuagoa bihurtuko da. Adibidez, abaniko ganga.




Gurutze ganga

Arku zorrotza eta pinakuluaren artean ez da giltzarririk behar indar nagusia jasotzeko. Era honetan, alboetara banatuko dira, baina indar zati hau beste elementu batzuek beharko dute: arbotanteek.

Altxaeraren oinarritzko egitura.




iraurun liturgiak ziren batzuk




Oinplantak:

Erromanikoan finkatutako ezaugarriak luze zuten; hala ere, konplexuagoak izaten heinean, ezaugarri aldatu ziren. Gurutze



latindarrak izango dira tipologia garatuenak.

- A. ABSIDILOAK
- B. GIROLA
- C. GURUTZADURA
- D. TRANSEPTUA
- E. ALBOKO PORTADA
- F. NABE NAGUSIA
- G. TARTEA
- H. DORREA
- I. PORTADA NAGUSIA



- A. ISURI BIKO ESTALDURA
- B. PINAKULOA
- C. GANGAREN GILTZARRIA
- D. ARBOTANTEA

- E. GURUTZE-GANGA
- F. ARKU ZORROTZA
- G. GARGOLA
- H. TRIFORIOA
- I. KONTRAHORMA
- J. BEIRATEA
- K. ALBOKO NABEA
- L. PILARE KONPOSATUA
- M. NABE ZENTRALA

**Garapen kronologikoa eta eredu nabariak.**

Lehen esan bezala, denborarekin tipologia gero eta burutuagoa izango da.

**1. Gotiko aurreklasikoa:** gotikoaren abiapuntua izango direnak. Katedral nagusitzat ondorengoak ditugu:

-Saint Denis Abadiako Absidea, 1144ean sagaratu, oinplanta, kriptak eta girola.



Suger abadeak bultzatu zuen absidearen, girolaren eta kapera erradialaren eraikuntza. Sugerren pentsaeraren ildoak neoplatonismoa eta artearen funtzio anagogikoak izan ziren, eta hori bertan isladatuta geratu zen. Pseudo Dioniso Areopagitak argiaren eta kontenplazioaren garrantzia sortu zuen. Argi eta ilunen efektuak beharrezkoak zirela konturatu ziren. Kontenplazioaren esker, fededuna jainkoaz hurbilago egongo da.

Bi solairuko eraikina da Saint Denis. Kapera

guztiak irekita daude, espazio libre bat sortzen delarik.

2. XII. Mendearen bigarren erdialdeko gotikoa: eraikin esanguratsuen, Laon-go Katedrala circa 1160, oinplanta eta habetarte nagusia dugu. Habetarte nagusiaren egitura lau mailakoa da, arku formero handiak, tribuna, triforioa eta lehiateak ditu. Esanguratsuak dira bertako sei zatiko gangak, gotiko ez burutua adierazten dute. Izan ere, geroago, ganga bakoitzak bere tartea izango du.



3. Gotiko klasikoa. XIII. mendean:

Eredua: Chartres-ko Notre Dame katedrala, 1195 hasita,



oinplanta eta habetarte nagusiaren altxaera. Oinplanoaren aldetik, elementuak bikoizten dira. Eraikina gero eta konplexuagoa izango da. Hau, hiru solairuko egitura da. Tribuna kendu zitzaion, indarrak arbotanteek jasaten zituztelako. Triforioa mantendu zuten zentzu dekoratzailean, murrua arintzeko soilik eta euskarri bakarra pilarea da. Sei zatiko gurutze ganga erabili beharrean, lautarikoa erabiltzen da.

4. Gotiko erradiatzailea. 1230-1240tik aurrera:

Orain arte ikusi dugun garapen prozesua mugetara eraman zuten. Izpiritualtasuna, egituraren argitasuna eta eraikuntza teknikak mugetara eraman ziren. Altueran luzatuko dituzte eraikinak, eta murrua desmaterializatuko dute bidriera askoz gehiago jarritz.

Sain Chapel (Paris), 1241-1248.



## 2. Eskultura:

Erromanikoaren eskultura hala ere, bolumetria

azken momentuko hartzen dute irizpide, naturalismoa eta areagotuko dituzte.

Formak:

- Hieratismoa eta konbentzionalismoa gairatuko dituzte.
- Formak estilizatuagoak, lirainagoak, samurgarriagoak.
- Mugimendu gehiago modu libreagoan.

Konposizioa:

- Eszena konplexuagoak.
- Markutik askatzen dira.
- Irudien arteko elkar komunikazioa nabaria da, ere berean, ikusleekikoa ere.


Funtzioa:

- Didaktikoa. Doktrina emateko modu bisuala.
- Irudiek gertutasuna transmititzen dute.

Programa ikonografikoak:

- Azken epaiketa.
- Ama birjinarenak.
- Santuen bizitzak.

-Reims, mendebaldeko portada, 1245-1255.



Naturalismora doa, baina forma klasikoak igartzen dira oraindik. Doikundea eta ikernea irudikatzen dira.

Gabriel aingerua oso modu naturalean tratatzen da. Irribarretsu dago. Burua txikiagoa izango da denbora pasa ahala. Eta ikus daitekeen bezala, oihalen lanketa guztiz klasikoak da.

Italia: modelo berezia.

Frantziatz gainera, batez ere garapen berezia Italiak bizi zuen.

Benetan adierazgarria Nicola Pisano. 1259. Pisako pulpitoa dugu. Pulpitoen garapena gotikoan eman zen, biblia bertatik irakurtzen baitzen.



XIII.mendean erromatar berreskurapena gertatu zen, batez ere Pisan. Eta XIII.mendeko azken herenean, aldaketa nabariak egon ziren, tokiko tradizioa eta arte bizantziarraren eragina batuz.

### 3.Pintura:

Naturalismoaren garapen estilistikoa nabaria da. Garapen estilistiko handiagoa dauka eskulturarekin alderatu ezker. Oso interesgarria da irudi linealetatik naturalismo handiko irudietarako garapena.

1.Gotiko lineala: Frantziako kodizeetatik ateratako estilo oso berezi. Funtsezko elementua linealtasuna da. Koloreak lauak, biziak eta argi-ilunen efekturik gabekoak dira. Formak irudikapen beltzez, ingeradaren bitartez lerrokatzen dira. Elementu arkitektonikoak eta dekoratzaileak gero eta oparagoak izango dira.

2.Estilo italogotikoa. XIV.mendean Italian: ingeradaren trazu beltza alde batera utziz, koloreen nagusitasuna lortu zuten, kolore paleta handituz. Bolumena eta sakontasuna nola sortu datekeen ikertzen hasiko dira artistak, beraz,perspektiben adierazpenen intentzio bat agertzen hasiko da. Bepizkunderako bidea hasiko da honekin. Banakotasuna jarraituz, irudien izaera bereiztuko da eta emozioak modu nabariagoak adieraziko dira.Paisaiak gero eta garrantzi handiagoa lortzen hasiko dira.

Artista nagusienetakoa Giotto dugu. Vasari idazleak, modernismoaren hasieratzat kokatu zuen Giotto, bere naturalismo kutsuaren irudien trataerarengatik. Garai honetan, mikrokosmos-aren teoria azaldu zen. Cenino Cenunek 1399an idatzi zuen honen inguruan. Natura abiapuntua izan behar da irudiak sortzeko; natura modu honetan eredutzat jotzea, berpizkundearen hastapen garbia da.



Giotto.  
Scrovegni  
Kapera.  
Padua, 1305.

3. Nazioarteko gotikoa. XV. mendearen lehenengo erdia, Europan: Garai honetan, Italiadagoeneko berpizkundean dago. Europan zehar gotiko estiloa zen nagusi oraindik. Irudien izaera lineala nagusi zen. Hala ere, irudiak narratiboagoak izaten hasi ziren eta eszena konplexuagoak eta aberatsagoak agertzen dira. Forma oparoagoak ere sortu ziren. Eguneroko bizitzarekin lotutako gaiak izan ziren ohikoenak. Gero eta naturalagoa zen pintura, hala ere, oraindik, artifizialtasuna nabaria da.



Berry Dukearen Ordu Liburua, 1411-1416 .

4. Estilo flandiarra. XV. mendeko bigarren erdia: Flandesen oraindik gotikoan bagaude ere pinturaren forma eta trataerak direla eta, ez du estilo honekin zerikusirik. Estilo burgesa eta egunerokotasunean oinarritutako koadroak azalduko dira, erlijiotik urrunduz. Genero pintura sortuko da: bodegoiak, eguneroko eszenak..

Arnolfini senar-emaztea, Jan Van Eyck 1434. Mihise gaineko oleo teknika da, eta kolore paleta gero eta aberatsagoa argi ikus daiteke. Eguneroko esparru fisiko batean kokaturiko irudia daukagu. Sinbolikoki, edukin sakona erakusten du. Izan ere, ezkontza egunerako egindako pintura da. Bikotearen oparotasuna adierazten da bertan: tertziopeloa, txakur asiarra, ispilua, dekorazioa, intimidadea..Honekin kontrastean, bikotearen janzkera dago, izan ere, oso dotore daude. Emakumea berde sinboliko batean, bere keinuek etorkizunean umeak izango dituztela adierazten dute. Geroko amatasuna eskaintzen digu. Izan ere, zentzu moralean, emakumeak ezin du haurdun egon. Emakumea eta gizona eskua emanez elkartuta daude; bakoitzaren betebeharrak zeharo finkatuta daudela dirudi, gizarte egoerari jarraiki. Argi-ilunen efektu nabaria, perspektibagatik interesa, detaileen oparotasuna eta izaera burgesa nabarmentzen dira.





### 3- Aro Modernoko arte estiloak (XV. mendea - 1789).

#### 3.1- Berpizkundeko artea: XV. mendea - XVI. Mendea.

Italiako kronologia:

- XV.mendea: Quattrocento.
- XVI.mendea: Cinquecento.

XIV.mendean Italian kulturak izugarritzko bilakaera izan zuen naturalismora hurbilduz. Literaturako adierazpenak ikus arteetara pasa ziren.

ERDI AROA	BERPIZKUNDEA
<p>-Naturaz gaindiko errealtatea: -Erljioaren nagusitasuna. -Naturaren/materialtasunaren errefusa.</p> <p>-Erdi Aroan zehar, materia eta izpirituen artean desberdintzen hasi ziren.</p> <p>-Gotikoak materialtasuna eta eguneroko bizitzaren ikuspuntua hasi.</p> <p><u>Ezaugarriak:</u> -Bolumena+materiari uko. -Perspektiba falta. -Espazioa+denbora ez dira kontuan hartzen. -Ez zaie ekintza konkreturik interesatzen, soilik trszendentalak, denborarik gabekoak. -Forma errealak ez. Mezuak du garrantzia. -Balore nagusia: ulergarritasuna. -Trazua da nagusi.</p>	<p>-Jarrera antropozentista:gizakia nagusi, jainkoaren antzekoa. -Gizakiaren alde materiala arimaren isladatzat. -Arrazoia pentsaeraren ildo. -Gizakiaren esku: mundua ulertua eta ordenatzea. -Zientifismoa: pinturak kutsu zientifikoa. -Teologia/filosofía/zientzia. -Denbora historikoa. -Errealitate neurgarria. -Giza ekintzen nagusitasuna. -Denbora eta espazio zehatz batean. -Paisaia natural edo hiriak. -Artearen funtzioa. -Edertasunaren adierazpena. -Errealitatearen imitazioa. -Heriotzaren ondoko ospea. -Giza etika/ bertutea. -Pedagogia/propaganda politikoa/ edertasunaren adierazpena.</p>

#### 1.Arkitektura:

- Lengoai klasikoaren berreskurapena.
  - Orden klasikoak.
  - Erdi puntuko arkua.
  - Kanoi ganga.

- Kupula.
- Eraikuntz prozesua zientifikoa bilakatu zen. Konplexutasuna → maketak.
- Giza eskala nagusia.

- Barneko espazioaren proportzio berezia.
- Horizontaltasunaren nagusitasuna.
- Materialak: adreiluak, harlandua eta harlagaitza, marmolezko xafla estalita..
- Eraikinen trataera berezia:
  - Harlandu kuxindua.
  - Tradizio klasikoaren elementuen erabilera.
  - Proportzioen nagusitasuna: pazzi kapera Florentzian.

Villa Rotonda. Andrea Palladio 1567-1570.



Espazio karratua eta zirkularra konbinatzen dira. Kupula estaldura dauka atzean. Tenplu erromatarrean dauka inspirazioa.

Pitti Palazzo. Firenze. Brunelleschi. XV-XVI.mendeetan.

Fa milia etheen monumentaltasuna eta handitasuna argi eta garbi ikusten dira. Italia oso ohikoak izan ziren horrelako familia etxeak, lorategia eta guzti.



San Pietro in Montorio. Bramante. 1502-1510

2.Eskultura:

1. Erronka:

- Arkitekturatik askapena.
  - Erliebearen elementuen izaera propioa finkatzea.
2. Mukulu biribileko eskulturak gero eta garrantzi handiagoa lortu.
3. Kultura klasikoaren irizpide formal eta estetikoaren berreskurapena ematen da. Beraz, helburu nagusia, edertasuna adierazteko lengoai plastikoa aproposa lortzea da. Platonek esaten zuen bezala, artearen justifikazioa edertasuna da. Honi lotuta giza gorputzaren nagusitasuna, anatomiaren garrantzia eta biluztasuna ditugu.



Condotiero Gattamelata Donatello. 1445-1450.  
Marco Aurelioren eskultura erromatarrarekin alderatuz gero, berdintasunak ukaezinak dira. Eredu klasikoen bidez, agintariek beren boterea aldarrikatzen zuten.


Luca della Robbia.



Garaiko erlieberik garrantzitsuenetarikoak hemen agertzen dira. Tipologia berria markatu zuten hauek. Luca della Robbiak egindako dekorazioa beraz oso garrantzitsua da.

Pietà. Miguel Angel. 1498-1500.

Miguel Angelen lanen artean hau da berak sinatu zuen bakarra. Bere atelanik burutuena dela esan ohi da. Ama eta seme bat irudikatzen dira. Umea ez da jaio berriz, hildako semea baizik. Dramaren punturik gorena lortu zuen Miguel Angelek eskultura honekin. Emakumea oso gazte da. Egitura piramidala dauka. Oihalen trataera benetan burutu da, tamainen desorekez baliatzen da ulergarritasuna lortzeko eta azkenik, marmol gaineko argi-ilunen efektu ugari ditu.



Rondanini pietà.1552.

Bukatu gabeko lana dugu hau. Oso espresionista da. Ama birjina edadetua ageri da eta konposizioa guztiz ezberdina da oraingo honetan.

San Lorenzo Medici hilobi kapera. 1520/1524-1534.

Arkitektura eta eskultura konbinatzen dira hemen, bien artean ados jarritz. Miguel Angelen lana da ere.



Hilobi  
Oso

Angelek nola pertsonalizatu dituen eta pentsalaria. Beraz, ondo zein. Sarkofagoa da, eta bertan irudia agertzen da. Bizitzaren Hilezkortasuna adierazteko berezia.



Lorenzo eta Juliano.  
kapera.

interesgarria Miguel bi pertsonaiak. Gerlaria bereiz daiteke zein den sinbologiaz betetako hasiera eta amaiera. tipologia eta sinbologia



### Miguel Angel. Liburutegiko eskailerak.



Manierismoa. Dimentsioa apurtu eta espazioaren sintaxia aldatzen da. Ikuspuntu klasiko bat hartuta, ez litzateke onargarria izango. Oso eskailera handiak dira dagoen tarte txikirako.

### **3. Pintura:**

- Giotto onartu zuten naturalismo tradizionalaren gidaritzat. Honen abiapuntua natura izango da.
- Egoera berezia eskultura eta pintura konparatuz gero:
  - Tradizio bizantziarra: Italia eta Italiatik Europa, tradizio bizantziarrari uko eginez.
  - Garai klasikoko oso eredu gutxi daude.
- Giotto izango da hauei aurre egingo diena, lengoai berria eta sistema plastiko berria sortuz: perspektiba.
- Pinturaren kontzeptu berri honen abiapuntuak:
  - Eragile berriak sortu ziren. Elizaren botereaz gainera, familia ugari lortu zuten botere handia. Erretratu pertsonalizatuak agertuko dira eta esanguratsuak diren elementu materialak agertzen hasten dira. Burgesia, genero pintura berria.



Lorenzo El magnifico. Medici. Boticelli. 1476-1477.

Galeazzo Maria Sforza. P. Pollaiuolo. 1476.



Azken protagonista artista izango da.  
Esku trebetasuna baino,  
adimena izatea izango da  
pintore izateko giltza.

Non gertatu zen  
mugimendu hau?  
Italian,  
Florentzian,  
Pavoan.


Mantegna. Senar emaztearen gela. 1470-1474.

Sinbolismo garrantzitsua ageri da. Mahatsondoa, aingeruak, kupidoa.. Emakumearen edertasun fisikoa kontuan hartzen hasiko dira.


#### **Pinturaren izaera berria:**

- Ikus arteen adierazpenetan, aurrerapen nabariena pinturak izan zuen. Hau, bere izaera narratiboari esker gertatu zen.
- Pinturak izaera esperimentalak garatu zuen, naturaren aurreko begirada zorrotza eta arrazoiez baliatuz.
- Leonardok esan bezala, pintura natura ulertzeko funtsezko baliabidea da, beraz izaera sasi-zientifikoa lortuko du.
- Errealitatearen aurreko jarreraren perspektiba ezinbestekoa izan zen. Helburua pinturan: errealitatea irudikatzea.
- Beraz, antzineko eredu platoniarra hartu zuten: “mimesia” edo “imitatio” ulertzen dugu guk latinez. Koadroa kanporako leiho bat izango balitz bezala hartu behar da. Ondorioz, natura zuzenean, trabarik gabe eta kalitatearekin transmititu behar da.

Masaccio. Trinitate Santua. Santa Maria Novella. 1428.



Bi ezaugarri hauek betetzen dituen fresko zaharrenetakoa dugu hau. Konposaketa trianguluarra eta aldi berean borobila dauka. Perspektibari esker, errealitate piktorikoa eskaileratua dago.



Perspektiba garatzeko sistema bereziak sortu zituzten: geometria, matematika.. ihes puntua finkatu ahal izateko. Leonardok pinturaren aldeko jarrera bizian, perspektiba metodoa landu zuen. Naturan zegoen hirugarren dimentsioaren izaera tratatu zuen sfumato teknikaren bidez. Errealitatean zeuden irudikapenak aire perspektiban sortu zituen eta honekin batera atmosferako (airea, argia, ilun efektuak..) efektuak sortzen zituen. Azken planoetako efektuak desitxuratzen dira beraz.

Sfumato: dibujoaren ingeradaren desagertzea.

→Azterketan izan daitekeen galdera: aire perspektiba eta sfumatoa, zer eta zergatik?

**Gaiak:**

1.Erlinjioak.

- Itun berria.
- Itun zaharra.
- Apokrifoak.
- Santuen bizitzen liburuak..

2.Berriak.

- Erretratuak.
- Mitologia.
- Biluziak.

**Laburbilduz, garaiko pinturaren kezkak:**

- 1.Hirugarren dimentsioaren adierazpena. (perspektiba/mimesia).
- 2.Dibujoaren nagusitasuna (diseinua).
- 3.Argia: konposizioa eta koloreari lotuta.
- 4.Bolumenaren irudikapena, masaren nagusitasuna, formaren gainetik.
- 5.Gorputzaren irudikapena, anatomiaren proportzioen alde teorikoak.
- 6.Pinturaren eszenatokiaren irudikapena: paisaiaren garrantzia, arkitektura. Pintorearen ikuspuntua = ikuslearen ikuspuntua.

**Berpizkundeko obra nagusi batzuk:**

- Federico de Montefeltroren erretratu. Piero della Francesca. 1468.Sudurrean errealismoa, familiaren izaeraren ezaugarria.*
- Ekaitza. Giorgione. 1508.*
- Kristo etzanda. A. Mantegna.1500. (perspektibaren garrantzia).*
- san Romanoko bataila. Paolo Ucello. 1456. Pinturaren izaera zientifista areagotu zuen. Eskortzoa egitearen lorpena. Ikuspuntua eta proportzioa ez ditu gorde.*
- David. Miguel Angel 1504.*
- Venusen jaiotza. S. Boticelli. 1482-1484.*
- Isaac-en sakrifizioa. C.Ghilberti.*

### **3.2- Manierismoa: XVI. Mendea.**

XV.mendean aldaketak egon ziren, manierismoa deritzona. Eraitza formal ezberdinak erakutsiko dizkigute artistek. XVII. Mendeko idazleek definizio batean sartzen zituzten, batez ere, Bellorik finkatu zuen manierismoaren definizioa, maniera hitzetik abiatuta.



Kolorearen zentzu bereziak, kolore metalikoak, irudi bihurrikatuak eta perspektiba txikiak nagusituko dira. Beraz, manierismoan artifizialak edo konplexuagoak diren formak nabarmenduko dira. Gorputz luzapenak dira horren adibide. Forma birfinduak ere, refinatua alegia. Mugimendu honek, forma bikainen lorpena burutuko du. Ondorioz, naturaren ikuspuntutik aldenduko ditu bai irudiak bai hauen trataerak ere.

Giambologna.

Parmigianino. 1535.

Lepo luzeko amabirjina eta bere semea. Kolore oso metalikoak aplikatzen dira. Argi fokua ez dugu ikusten, iluminazio antinaturala delarik. Hau da, koherenteak ez diren argi-ilunen efektuak daude. Tamainaren bidez umeari garrantzia ematen zaio.



El greco, Laoconte. 1608-1614.



Drama morala irudikatzen da. Adan eta Evaren garaitik gaur egun arterako egoera. Beraz, sinbologia oso konplexua dauka, formak sakontzen dituelarik. Naturaren harremanetik aldendu dela nabarmentzen da.

**Zer gertatu zen garai honetan, horrelako aldaketak bizitzeko?**

- Humanismoaren krisia:
  - Gizakiaren nagusitasuna.
  - Balio eskala morala.
  - arrazoiaren baiezkoortasuna.
- Gertaera politikoak:
  - 1527. "saco de Roma", Erroma sakeatu zuten.
  - Lutero 1517. Erreformaren lehen bultzada → eliza erakundeak porrot.
- Ikuspuntu kulturaletik:
  - Klasizismoaren jenoia, Rafael hil 1527an.
  - Eredu klasikoaren nagusitasunak krisia bizi zuen.
  - Naturaren aurreko jarrera aldatu zen.
- Artegintzaren aldetik:

- Edertasunaren kontzeptua aldatu zen. Edertasun naturalaren ordeztasuna intelektualizatzen da. Formak artistaren adimenetik sortuko dira.
- Natura ez da artearen abiapuntua izango.
- Luzatu eta monumentalizatzen dira formak.
- Argi-ilunen efektu ez naturalak.
- Koloreen paleta naturatik urrundu: kolore metalikoak, disdiratsuak..
- Kontzeptu berriak: grazia, samurtasuna, sofistika..
- Konposizioaren ordena eta argitasunaren ordeztasuna, konplexutasuna. Konbinaketa bitxiak, perspektiba desitxuratuak.

### **3.3- Arte Barrokoa: XVII. Mendea.**

Europa eta Iberoamerikan, XVII. Mendean eta XVIII. mendearen lehenengo erdialdean garatutako artea da barrokoa.

Mendebaldean, hau da, Europan, naziotasunaren finkapena eman zen. Pentsaeraren aldetik, erlijioaren aurrean, arrazoiaren boterea finkatzen hasi ziren (Bacon XVII.). Filosofiaren aldetik, adimenaren nagusitasuna eta banako arrazoiaren boterea garatu zuten, subjektibismoa emaitzaz hartu zutelarik. (Descartes, XVII.). Erlijioan, Luteroren erreforma esanguratsua izan zen. Eta honi aurre egiteko, kontra-erreforma (Trentoko kontzilioa, 1545-1563) burutu zen. Honen emaitzak benetan garrantzitsuak izan ziren.

#### San Pedro plaza, Vatikanoa.



- Berninik amaitutako obra dugu.
- Elizaren eskutik sortuta: erreformari aurre egiteko bidea: auto-baieztapena.
- Aita Santua: banako eta erakundearen proiektzioa.
- Erregetza eta botere zibila: propaganda.
- Burgesia: dekorazioa, oihartzun soziala.
- Funtzio dekoratiboa.

#### Barrokoaren izaera sakona:

Mentalitate aldaketa garatu zen, eta horrek, lengoai formal ezberdinaren sorrera dakar. Gaiarekin koherentea izango den kultura eta ideologia sistema guztiz berria finkatuko dute. Momentuko aldaketa guztien erantzuna izan zen barrokoa. Aukera estetiko eta formal berriak azalduko dira, hala ere, klasizismoaren erroak jarraituko dituzte. Barrokoaren aurretik ez bezala zentzumena eta dinamismoa (natura bizirik, elementu aldagarriak) nagusituz, berpizkundeko arrazionalismoaren aurrean jarriko dira.

FORMAK	
BERPIZKUNDEA	BARROKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Linealtasuna.</li> <li>-Azalezko trataera.</li> <li>-Forma itxia, bikaina, burutua.</li> <li>-Aniztasuna.</li> <li>-Mezuaren argitasuna (klaritatea).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Piktorikoa (kolorea).</li> <li>-Trataera sakona.</li> <li>-Forma irekia.</li> <li>-Batasuna.</li> <li>-Konplexutasuna: forma eta elementu anitz, informazio aberatsa.</li> </ul>



**Funtsezko ezaugarriak:**

**1. Dinamismoa:** mugimendua oso esanguratsua izango da; formen okertasuna eta konposizioaren konplexutasuna.



**P.P. Rubens. Leuziporen alaben bahiketa. 1616.**

Drama berezia azaltzen du, bertan emakumeak protagonistak direlarik. Eskemaren konplexutasuna aipatzekoa da. Bi ahizpek kontrako postura dute. Espazio piktorikoa itxi egiten da, eszena bat bakarrik erakutsiz. Begien komunikazio bizia ageri da emakume eta gizonen artean. Mugimendu asko duen koadro bizia da.

**2. Teatralitatea:**

**Bernini. Santa Teresaren estasia, 1647-1651.**

ere.



Dramaren transmisioa du helburu obra honek; garai batean gertatutakoa gaur egun adierazte hain zuzen

**3. Arranditasuna:**

**Bernini, Baldakino. 1626-1633.**  
Monumentaltasuna.



**4. Sentimenduen adierazpena:**  
bultzadak, emozioak oso ondo

sentimenduen  
adierazi zituzten.

**Artemisia Gentileschi. Susana eta atsoak, 1610.**



Artemisia bainatzen den bitartean, atsoak modu laszibo batean begiratzen daude. Artemisiaren historia jakinda, izan daiteke gai berezi hauen trataera ulertzea. Gizonen mehatxua eta emakumea biktimatzat hartzen da. Garaiko gustuek ere, eszena hauek ohikoak egiten dituzte, baina beste artistek modu "lasaiago" batean.

**5. Naturalismoa:** errealtatetik formak eta hauek, filtrorik pasa gabe, marrazten zituzten.

Caravaggio, Amabirjinaren heriotza, Ikuslearen ikuspuntua ez da kontuan ikuspuntu ugarirentzako eginda Begiradak, ikuspuntuaren arabera ezberdinetara abiatzen dira. Argi-intentsuak irudikaturik daude. dramatismoa, intentsitatea bai kortinan, bai eta amabirjinaren



hartzen zituzten zuzenean

1605-06. hartzen hemen, baita go. eremu ilunen oso efektu Gorriaren irudikatzen dira, arropan ere.

**Gaiak:** erlijiosoak, erretratuak, bodegoiak..

mitologikoak,

### 1.Arkitectura:

Mezua helaraztearen funtzioa duten eraikinak sortuko dituzte garai honetan. Ohikoenak elizak, katedralak eta kaperak izango dira. Hala ere, horietaz gain badaude beste hainbat eraikin: palazioak, egoitza palazialak (adibidez Versailles) eta hôtél tipologiakoak. Hôtel tipologia berri hau, lorategiez inguratutako hirietako palazio txikiak dira. Frantzian sortu eta Europa osora zabaldu ziren. Borromini, San Carlino. 1638-1642.



Arkitekturaren ezaugarriak:

1.Espazio aberastasuna eta bizitasun plastikoa.

Guarino Guarini. Palazzo Carignano. Turin, 1679-92.

Muruaren mugimendua lortu eta dinamismoa mugetara eramane zuten. Eraikinaren fatxadan uhinak sortu zituzten. Barneko espazioa ere mugitzen da, eta barneko antolaketan arazoak sortzen dira.



2.Fatxada masa bakar bat bezala ulertzen da, zentzu eskultoriko baten moduan.

Les Invalides. Paris. L.H. Monzart, 1671-6.



Ospitalea zen antzinean. Gaur egun, arma museo moduan erabiltzen da eraikina. Elementu klasikoak ditu, baina fatxada monumental bat eraikitzearen soilik. Ondoren, kupula handiari ematen zaio garrantzia. Desproporzioa.

3. Barrualdeari dagokionez, eraikin erlijiosoetan, Trentoko kontzilioaren ondorioz, elizetako elementu paganoak desagertzearen asmoa egon zen; hauen artean, oinplano zentralak. Baina liturgia burutzeko orduan, barneko espazioan mugimendua errazteko, oinplano zentralak eta luzeak nagusi dira. Hala ere, ez dira guztiz zentralak eta luzeak, obalatuak baizik.

Quirinalgo San Andres.



## 2. Pintura eta eskultura:

Mezuaren mamia baino, honen helarazteko moduari eman zitzaion garrantzi gehiago.

1. Handitasuna.
2. Teatralitatea.
3. Mugimendua.
4. Dramatismo bizia.
5. Konposizioaren aldetik, konplexutasuna eta argi jokoaren garrantzia.
6. Kolorea marrazkiaren gaitetik.

Pinturan ezaugarri guzti hauek mugetara eraman zituen artista Caravaggio izan zen. San Pabloren konbertsioa. Caravaggio. 1600-1.



Pablo zalditik erori berria delarik, dramatismoa nabaria da pintura honetan. Argi-ilunen efektuak artifizialak dira. Begiraden ikuspuntua ere jorratu zuen artistak. Konfusio momentua sorrarazten digu hanketan. Honek, eszena bereganatzen laguntzen digu.

Valladolideko Pablo bufoia. Velazquez, 1633-5.

Korrante honekiko Espainiako maisua izan zen Velazquez. Inolako daturik duen espazioa sortzen du. Deformidaderik gabeko bufoia, gizon arrunt baten moduan irudikatzen da. Baina izugarritzko indarra transmititzen digu. Erretratuaren ezaugarri psikologikoak transmititzen ditu. Atzealdean itzala dago; errekurtsio soil honi esker hiru dimentsioko espazioa sortzen du artistak. Benetako hiru dimentsio daudela dirudi, sinesgarritasuna dauka eta. Gorputza guztiz beltza da, argia aurpegi eta eskuetan du soilik. Baliabide oso soiletan oinarritzen da, honekin jenio batean bilakatuz.



### 3. 4- Arte Rokokoa: XVIII. Mendea.

Pariseko gortearen inguruan sortutako arte estilo frantziarra da. Estilo honetako artelanak batez ere jauregi barnealdeko dekorazioan nagusitu ziren. Oso dekoratzailea, aberatsa, asimetrikoa da orokorrean. Forma ondulatuak, oso konplexuak eta naturatik hartutako elementuak (itsasokoak, harriak, landareak) dira nagusi.

#### Funtsezko elementuak:

-Frantzia sortu zen 1700 inguruan. (Luis XV-Luis XVI).

-Pariseko gorteak inposatutako klasizismo barrokoari aurre egiteko aukera izan zen estilo hau.

-Barrokoaren iluntasuna eta argi-ilunen jokoak alde batera utziz, kolore bizi, oparo eta indartsuak erabiliko dira.

Rokoko estilotik handitasun gehien lortu zuena pintura izan zen. Pinturak, barne espazio intimo eta pribatueterako ziren. Gai mitologikoak dira normalean, baina ez dira balore gorenen adierazpen, eguneroko gaiak errespetatzen dituzte; hala nola, amoranteak, bainuak.. Batez ere jainkosak agertzen dira une intimoetan, biluztasun eta marko begetala dutela presente, nahiz eta figurak diren nagusi.



#### Boucher. Dianaren bainua. 1742.



Diana jainkosa emakume arrunt bat izango balitz bezala irudikatzen da biluzik, oso egoera intimoan. Natura esparru batean kokatzen da. Hala ere, bera ezagutzeko beharrezkoak diren elementuak ditu: eperrak eta ehizatze tresnak. Koloreen erabilera esparru intimoarekin bat dator, sexualitatea bultzatuz.

#### txakurrarekin jolasten.

Koadro osoan, emakumea da soilik. Hau txakurrarekin berezia da, sentsualitatez



#### H. Fragonard. Zabua. 1767.

#### H. Fragonard. Gaztea 1776.

esparru intimoan irudikatzen jolasten dago. Oso eszena betetakoa.



Era nahiko dekoratzaile batean hartu du artistak esparru natural basatia. Honi kontra eginez emakumearen trataera oso delikatua da. Bi kupido daude atzean, horrek sexualitatea areagotzen duelarik. Argi fokua guztiz artifizia da. Ez era esplizitu batean, emakumeak gizonari zapata gabeko oina eskaintzen dio. Emakumea gizon batetik besterako mugimenduan jolasean dabil. Oso joko berezia da, joko sexual baten adierazpena hain zuzen ere.

Morala ustelduriko garaiak izan ziren eta Maria Antonieta izango da honen ikur. Honen kontra sortuko da:

## 4- Aro Garaikideko arte estiloak (1789 - 1939).

### 4. 1- Arte Neoklasikoa: XVIII. mendea - XIX. mende hasiera.

Ilustrazioa arrazoiaren mugimendua izan zen. Filosofia, zientziak, esparru sozialak, politikak...garaiko gizarteko emaitzetan eragina bultzatu zuen bai Frantzia, bai eta Europa osoan ere. Honek guztiak, neoklasizismoa sustatuko du, arrazoi eta moralaren itzulerarako, bina, horren kontrako, erromantizismo sentimentala ere sortu zuten, paradoxa bat eraginez.

Testuinguru historiko/kulturala:

- Ilustrazioa oso mugimendu zabala izan zen, XVIII.mendeari argien mendea esaten zaio.
- Pentsamendu arrazionalista (argia) joera intelektualak nagusitu ziren.

Grande Encyclopédie. 1751: entziklopedia argitaratu zuten, bertan ikus arteen hainbat definizio eta artikulua sartu zituzten.

-Mendebaldeko pentsaeraren idazlanik inportanteenetariko bat da. 28 liburukoa da eta hainbat idazlek parte hartu zuten testuen idazketan baina J.Le Rond D´Alambert (1717-1783) eta D.Diderot (1713-1784) izan ziren zuzendariak.

-Ikus arteen balioespenerako irizpideak finkatu zituzten, analisi artistikoaren funtsak finkatuz.

-Filosofikoki, ohiko pentsaeraren haustura suposatu zuen: arrazionalismoa. Beraz, arrazionalismoa izan zen filosofiaren base berria. Adibidez (John Locke (1632-1704), enpirismoan jatorria, *of the conduct of the understanding*.

-Arrazoia guztia ulertzeko giltza.

Arte Ederren Akademia.

Ziotenez, guztiongan dago ikasteko gaitasuna. Beraz, gauzak ikasi badaitezke, artea Arte Ederren Akademian irakatsiko da. Izendazioaren agerpena antzinarotik dator, Platonen garaian eta ondoren Florentzia eta Erroman berpizkundean existitzen ziren. Geroago, XVIII.mendean, Ch.Le Brun (1619-90) pintoreak gauzatu zuen akademia modernoaren eredia oinarritzat hartzen da. 1720ean 19 akademia zeuden Europa osoan eta 1790rako, ehun baino gehiago.

Margolari hauek ez zituzten balore erlijiosoak buru, arrazoimena, hiritartasuna, anaitasuna, berdintasuna, lege ordena...Alegia, moral berri bat eraiki zen eta hau zen

jendeari helarazteko bidea. Moral hauen jabeak, antzinako kulturak zirenez, beraien isla garbia gauzatuko dute, hots, klasizismora itzuliko dira, neoklasizismoa sortuz.

#### NEOKLSIZISMOA:

-Azken estilo unibertsala izan zen, balore guzti hauek Europara banatu baitziren. Baina estilo hau ez da indar osoan egongo iraultza gertatu arte. Bitartean, beste herrialdeetan azken barrokoaren emaitzak, Rokokoa eta Erromantizismoaren hastapenak agertuko dira.

-Paris da mugimendu honen abiapuntu.

-Akademiak gauzak nola bideratu finkatu zuen. Artistek beraz, beren inpulsoei ezin zieten segi, ildotik aterako baitziren. Horrela sortu zen erromantizismoaren hazia.

-Garaikidekoak izango dira:

-Azken barrokoaren emaitzak.

-Rokokoa.

-Neoklasizismoa.

-Erromantizismoaren hastapenak (barneko bultzadak).

#### Ezaugarri estilistikoak:

- Antzinaroko artea izango da eredu. (Herkulano eta Ponpeia).
- Antzinaroko etikak eta estetikak nagusitasuna lortuko du.
  - Balore estetikoak: ordena, handitasun lasaia, forma bikainak eta forma eta edukien adostasuna.
  - Balore etikoak: duintasuna, hiritartasun berriz, arrazoiaren nagusitasuna, artearen funtzio hezigarria..
  - Kode formal honen funtsean edertasuna dago. Eduki moraleko edertasuna. Platonek esaten zuen bezala, edertasuna eta ondiaren hurbiltasun kontzeptuala.

#### Arkitektura:

Leo Von Klenze. Municheko Pinakoteka. 1826.



Ez dute klasiko berdina egiten, baina ordenak jarraitzen ditu eta eraikinak era berri batean konbinatzen dira. Estatuak eta beste elementuak erabiltzen ziren dekoratzeko. Hala ere, ukaezina da antzinaroko arkitektura erduetatik oso gertu dagoela.

Juan de Villanueva. Madrilgo Prado museoa. 1785-7.



### Eskultura:

- Forma bikainak.
- Lasaitasuna mugimenduaren gainean.
- Edertasunaren irispide klasikoak, edertasun formala nagusi, izpiritualtasunaren gainean.
- Argi-ilunen efektuak baztertzen dira.
- Azalak guztiz landuak.
- Gaiak: literatura, mito klasikoak, erretratuak, historia... Baina kasu guztietan gaurkotasunez beteta.

Antonio Canova. Besarkada. 1793.



### Pintura:

- Gainontzeko elementuak desagertzen dira. Argitasuna da balore bakar eta nagusia.
  - Mezuaren argitasuna.
  - Konposizioaren argitasuna.
  - Irudien izaeraren argitasuna.
- Dibujoaren nagusitasuna, kolorearen gainetik.
  - Kolare paletak mezuaren argitasunari lagunduz, argiak izango dira.
- Ilusionismoa, izpiritualtasuna, sentimendua, pasioa..desagertuko dira.

J.L. David, Horaziarren zina. 1784.



Bi familien arteko liskarra. Erromaren ohorea gordetzea helburu.